Dokumentu honekin eta bertan jasotako aurreikuspenen zehaztapenarekin, alde batetik, 2006ko ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 62. artikuluan eta, bestetik, 2008ko ekainaren 3ko Dekretuaren (105/2008 Dekretua), aurreko Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzkoaren, 31. artikuluan ezarritakoa betetzeaz gain, planteatutako hirigintza-proposamenak bideragarriak direla justifikatzen da.

*Kasu honetan, egungo Plan Bereziaren aldaketa denez eta **eraikigarritasun-parametroak eta partzelan egin beharreko etxebizitza-kopurua mantentzen** direnez, aurreko Plan Berezia onartua izanak horren bideragarritasuna justifikatzen du.*

2011ko Plan Bereziaren aldaketa honen helburua da etorkizuneko eraikuntza, partzelaren geologia-konposiziora egokitzea. Horretarako, bereziki aurreikusi da etorkizuneko garapena partzelaren testuinguru zehatzean ezartzea, beraz, eraikinaren eraikuntza-profila eta haren lerrokadurak aldatu dira. Dokumentu honetan jasotako aldaketek ez dute eraginik proposamenaren ekonomia-balantzean. Nolanahi ere, justifika liteke horiek lagungarriak direla etxebizitza-salmenten diru-sarrerak handitzeko, izan ere, aldaketa horien ondoriozko etxebizitzek seguruenik ingurumen- eta eguzkitzapen-baldintza hobeak izango baitituzte.

Azkenik, proposamena bideragarritzat jotzen da edozein kasutan, izan ere, proiektua sustatzaile bakarraren titulartasun pribatuko partzelan etxebizitza-sustapena da, garapen bidean dagoen hirian, non biztanleria-indizea handitzen dagoen.

3.2 EKONOMIA-JASANGARRITASUNAREN MEMORIA

3.2- EKONOMIA-JASANGARRITASUNAREN MEMORIA

2. EKONOMIA-JASANGARRITASUNAREN MEMORIA BEHAR EZIZATEAREN JUSTIFIKAZIOA

Plan Bereziakin batera aurkeztu beharreko ekonomia-jasangarritasunaren memoriaren helburua da Ogasun Publikoetan proposatutako antolamendu-jarduketaren eragina neurtzea.

Dokumentu hau aurkezteko beharra: urriaren 24ko 1492/2011 Errege Dekretuaren, Lurzoru Legearen balorazioen Erregelamendua onartzen duenaren, 3.1. artikuluan jasotzen da.

Lurzoruari buruzko Legearen testu bategineko 15.4. artikuluan (egun 22.4. artikuluan) xedatutakoarekin bat eginda, urbanizazio-jarduketetako antolamendu-tresnen dokumentazioak ekonomia-jasangarritasunari buruzko txostena edo memoria izan behar du. Txosten horretan, bereziki, jarduketa egiteko beharrezkoak diren azpiegiturak ezartzeak eta mantentzeak edo ondoriozko zerbitzuak abian jartzeak eta eskaintzeak Ogasun Publikoetan izango duen eragina haztatuko da, baita ekoizpen-erabileretarako lurzoruen nahikotasuna eta egokitasuna ere.

Zehazki, eta tokiko ogasunaren ekonomia-eraginari dagokionez, antolamendu-tresnan aurreikusitako hiri-hazkunderaurre egiteko beharrezkoak diren zerbitzu publikoak abian jartzeak eta eskaintzeak eragindako mantentze-kostuak kuantifikatuko dira. Gainera, tokiko zerga nagusietatik eratorritako udalarentzako diru-sarrerak ere zenbatetsiko dira, aurreikusitako eraikuntzaren eta bertara joango den biztanleriaren arabera. Kostu horiek guztiak jarduketaren eraikuntzak amaitu arte aurreikusi daitezkeen egoera sozioekonomikoen arabera ebaluatuko dira.

Dokumentu honetan aztergai den hiri-antolamenduko eragiketa 7.A.2 – Santa Klara 19 lurralde-eremua da. Partzela garatzeko jarduketa 1.093 m²ko azalera egingo da eta hirigintza-eraikigarritasunari dagokionez, 2.308 m²/(s) bizitegirako dira eta 3.546 m²/(s), aldiz, aparkalekurako eta erabilera osagarrietarako. Jarduketa isolatua da, deskribatutako azpieremua Santa Klara auzoan (Elgoibar) hiri-lurzoru finkatua baitago.

Hiri-lurzuruan, eraikuntzaren **osagarri** diren urbanizazio-obrak eta zerbitzu berriak ezartzeko obrak jabeen kontura izango dira, araudian zehazten den bezala.

Lurzorua eraldatzeko beharrezkoak diren urbanizazio-obrek, baita ondorengo azpiegiturek ere, saneamendu-sareak, telefoniak, energia elektrikoak eta ur-hornidurak, ez dute kosturik izango administrazioarentzat. Gainera, horrek jabari publikorako lurzoruen lagapena (edo ordeko kalte-ordain ekonomikoa) eta eraikigarritasun librearen % 15, kargarik gabe, jasoko du. Lagapen horiek, aurretik ezarri bezala, eraikuntza-lizentzian egingo dira, kasu honetan lurzorua jabe bakarrarena denez, ez da beharrezkoa izango ekitatez banatzeko agiria idaztea.


Aldaketa honen azpieremuak titulartasun publikoko hiru partzela eta partzela pribatu bakarra ditu eta IV. "Egikaritzea antolatzeke eta kudeatzeko gidalerroak" dokumentuan jasotakoaren arabera, aurreikusten da partzela pribatuaren jabeak bere gain hartuko dituela 1. partzelan urbanizazioa eta eraikuntza normaltasunez garatzeko aurreikusitako urbanizazio-karga osagarriak.

PARTZELA	EGUNGO AZALERA [m ²]	ALDATUTAKO AZALERA [m ²]	JABARIA
1	591,00	591,00	Pribatua
2	165,56	194,10	Publikoa
3.1	175,45	134,92	Publikoa
3.2	160,99	173,10	Publikoa

Hiriaren hirigunean barneratuta dagoenez, ez da aurreikusten garraio publikoari dagokionez, udal ogasun publikoan eragin erantsirik.

Horrela, ondorioztatu da HAPBren aldaketa honek partzela pribatuen barruan garatu beharreko jarduketak arautzen dituen, hura onartzeak ez dakarrela Udal Ogasunean betebeharrak gehigarriak.

Bilbon, 2024ko ekainean



Fdo: PERU CAÑADA OMAGOGEASCOA

BILBAO ARCHITECTURE TEAM S.L.P.



Fdo: XABIER ARRANZ DÍEZ

BILBAO ARCHITECTURE TEAM S.L.P.

IV. EGIKARITZEA ANTOLATZEKO ETA KUDEATZEKO GIDALERROAK



4. EGIKARITZEA ANTOLATZEKO ETA KUDEATZEKO GIDALERROEN AURKIBIDEA

4. EGIKARITZEA ANTOLATZEKO ETA KUDEATZEKO GIDALERROAK.....	4
I. XEDEA.....	4
II. LURZORUAREN SAILKAPENA, JARDUKETA-MOTA ETA EREMUA.....	4
III. JARDUKETA-ARAU BIDEA ETA -SISTEMA.....	4
IV. ERAIKIGARRITASUNA ESLEITZEKO ARAUBIDEA.....	5
V. URBANIZAZIOA EGIKARITZEKO ARAUBIDE-OROKORRA.....	5
URBANIZAZIO-KARGAK	5
VI. ERAIKUNTZA-EGIKARITZEAREN ARAUBIDE-OROKORRA.....	5
EGIKARITZE-EPEAK	6
VII. ANTOLAMENDUZ KANPOKO ERAIKINAK, INSTALAZIOAK ETA ERABILERAK.....	6

4. EGIKARITZEA ANTOLATZEKO ETA KUDEATZEKO GIDALERROAK

I. XEDEA

Dokumentu honen helburua da Plan Bereziaren aldaketa honetan planteatutako antolamendu-proposamena antolatzeke eta kudeatzeko aurreikuspenak zehaztea HAPOk udal-araudian jasotako lurralde-eremurako, hau da, **7.A.2 - Santa Klara 19 azpieroemurako**, eta orubearen HAPBn, aldiz, Elgoibarko Aizkorri 3. Sektoreko 4. H.E.U. dena.

II. LURZORUAREN SAILKAPENA, JARDUKETA-MOTA ETA EREMUA

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 136. artikuluan - "**Jarduketa isolatuak**" ezarritakoaren arabera, Plan Berezi honetan garatzen den esku-hartzea honakoan datza: hiri-lurzoru finkatuan eraikuntzako **jarduketa isolatua** egitea. Aipatutako egikaritze-araubide hori Elgoibarko HAPOn 76.2 artikuluan jasota dago, "*Hiri lurzorian hirigintza antolamendua gauzatzeko erregimena*". 2 -Jardun bakartuak

Plan honetan ezarritako jarduketak partzelaren jabe diren subjektu pribatuen berezko jarduketa-eremukoak dira eta haiek egin beharko dituzte, edo bestela jarduketa aurrera eramateko beharrezkoak diren ahalmen zein eskubideak norbaiti baimendu edo transferitu. Eraikuntza-jarduera administrazio publiko eskudunaren esku-hartzearen menpe egongo da, Lurzoruari buruzko Legeak ezartzen duen moduan.

136. artikulua.- Jarduketa isolatuak. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea

Lege honetan aurreikusitako ondorioetarako, kasu batzuetan egindako eraikitze-jarduketak joko dira jarduketa isolatutzat, hain zuzen ere kasu hauetakoak:

a) Lehendik dauden orubeak, baldin eta horiek urbanizatzea hirigintzako antolamenduak egokitzen eta nahikotzat jo badu eraikitzeke. Alabaina, hiri-lurzoru finkatuaren kategoriaren barruan orubeak duten kontsiderazioa kontuan izan behar bada ere, proindibiso-araubidea duten orubeak birpartzelatu egin ahal izango dira. Horretarako, gutxienez jabetza-kuotaren % 50 ordezkatzen duen edozein jabe bide egin beharko du eskaera, eta bipartzelatzeak ez du gairidituko orubearen eremua.

b) Partzela eraikigarriak, baldin eta horiek orube bihurtzeak, eraiki aurretik edo aldi berean, 195. Artikuluan ezarritakoaren araberrako urbanizatzeko-obra osagarriak egitea baino ez badu eskatzen

140. artikulua.- Egikaritzearen jarduketa-eremukoak. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea

1. Eraikitzeke jarduketa isolatuak partzela edo orubeen jabe diren subjektu pribatu edo publikoen jarduketaren arlokoak dira, eta jarduketan ardura, bestalde, subjektu horiek, horien baimena dutenek, edo horiek nahiko ahalmen edo eskubide ematen dizkietenek edukiko dute. Eraikitzeke jarduketa garatu ahal izateko, eskumena duen herri-administrazioak esku hartu beharko du, lege honetan xedatutako eran.

III. JARDUKETA-ARAUBIDEA ETA -SISTEMA

7.A.2 azpieroemurako Plan Bereziaren aldaketak funtsean 1. partzelaren geometriari eragina duenez, 3-1 eta 3-2 jabari publikoko partzelen geometriari ere eragina dauka. Aldaketa horiek egindako azterketa geoteknikoan atzemandako mendi-hegalaren ezegonkortasun handiagatik egin dira. Hala ere, horiek ez dute inolako aldaketarik suposatuko hirigintza-aprobetxamenduan, bestalde, 1. partzela jarduketa isolatua denez, bertan planteatzen diren eraikuntzak egin baino lehen edo aldiberean urbanizazio-obra osagarriak egin beharko dira. Hori guztia, aldaketa honen ondoriozko muga eta azalera berriak dokumentu publikoan instrumentalizatzea eragotzi gabe.

Eragile pribatuak sustatuko du plangintzaren egikaritzea, horretarako, beharrezkoak diren jarduketak eta inbertsioak egingo ditu, sor daitezkeen urbanizazio-gastuak bere gain hartuta.

IV. ERAIKIGARRITASUNA ESLEITZEKO ARAUBIDEA

Oro har, hiri-lurzoruan hirigintza-erakigarritasuna esleitzeko araubidea indarreko hirigintza-legerian ezarritako irizpideetara egokituko da, hirigintza-eraldaketako jarduketei lotuta egon ala ez.

V. URBANIZAZIOA EGIKARITZEKO ARAUBIDE-OROKORRA

Plan Berezi honetan antolatutako partzeletan egin beharreko urbanizazio-obrak partzela bakoitzean sustatu beharreko eraikuntza-proiektuko obra osagarrien proiektuaren xede izango dira, Lurzoruari buruzko 2/2006 Legearen 195. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.

83. artikulua. Urbanizazio-obren proiektuak formulatzeko erregimena. -Elgoibarko HAPO

4. Urbanizazio-obrak zehazteko eta gauzatzeko dituzten eta jardun bakartuen xede diren esparruak (...) urbanizazio-obra osagarrien proiektuen xede izango dira.

195. artikulua.- Obra osagarrien proiektuak, obra publiko arrunten proiektuak eta zuzkidura publikoko obren proiektuak

1.- Jarduteka isolatuetarako aurkeztu behar diren urbanizazio-obra osagarrien proiektuetan, lizentzian baimendutako eraikuntza-obraren orotariko aurrekontuaren % 5eko edo gutxiagoko kostua duten urbanizazio- edo konpontze-lanak bakarrik sar daitezke. Udal-ordenantzetan ezarritako prozeduraren bitartez onartuko ditu udalak proiektu horiek -Arabako udalerrien kasuan, eragindako kontzejuen txostena ere jasoko da nahitaez-, edo, bestela, eraikuntza-proiektuaren eranskin gisa jasoko dira proiektuok, eta dagokion lizentziaren bitartez baimenduko dira.

2.- Obra publikoak egiteko edo zuzkidura publikoak egikaritzeko proiektuek, lege honetan urbanizazio-proiektu modura kalifikatuta ez baldin badaude, aplikatzekoa zaien arautegiari jarraituko diote izapidetzeari eta onespenerari dagokienez.

URBANIZAZIO-KARGAK

Aldaketa honen azpieroak titulartasun publikoko hiru partzela eta partzela pribatu bakarri ditu.

III. atalean adierazi bezala, beharrezkoak diren urbanizazio-obra osagarriak 1. partzelako jabearen ardura izango dira.

Urbanizazio-kargak aurreikusitako guztiak izango dira (urbanizazio-obrak, proiektuen ordainsariak, etab.), horiek 3.1- *Ekonomia- eta finantza-bideragarritasunaren azterketaren dokumentuan* jasota daude.

VI. ERAIKUNTZA-EGIKARITZEAREN ARAUBIDE-OROKORRA

Jarduketa isolatuen eraikin berriak eraikitze beharrezkoa den udal-lizentzia eman ahal izateko, alde aurretik edo aldi berean urbanizazio-obra osagarrien proiektua egin eta onetsi beharko da, betiere, obra horiek zehazteko eta gauzatzeko beharrezkoa bada.

Ahal den guztietan, urbanizazio-obra horiek eraikuntza-lanak hasi baino lehen egingo dira. Nolanahi ere, kasu bakoitzeko baldintza eta ezaugarriak kontuan hartuta, Udalak baimendu beharko du urbanizazio- eta eraikuntza-obrak aldi berean egitea eta, hala badagokio, egoki irizitako bermeak jarriko ditu.

Era berean, aipatutako udal-lizentzia eman ahal izateko, alde aurretik edo aldi berean Udalarri laga beharko zaizkio jarduketa horri lotutako zuzkidura-publikoetarako lurzoruak.


EGIKARITZE-EPEAK

Egikaritze-unitateetan edota jarduketa integratuko eremuetan jasota ez dagoen partzela eraikigarria denez, proiektatutako eraikin berriak egiteko eta dagozkien obrak hasteko lizentzia eskatzeko epea lau (4) urtekoa izango da, hura onartzen denetik hasita.

VII. ANTOLAMENDUZ KANPOKO ERAIKINAK, INSTALAZIOAK ETA ERABILERAK


Ez dago antolamenduz kanpoko eraikinik, instalaziorik, ezta erabilerarik ere.

Bilbon, 2024ko ekainean



Fdo: PERU CAÑADA OMAGOGEASCOA

BILBAO ARCHITECTURE TEAM S.L.P.



Fdo: XABIER ARRANZ DÍEZ

BILBAO ARCHITECTURE TEAM S.L.P.

V. EGIKARITZE-LABURPENA



5. EGIKARITZE-LABURPENA

105/2008 Dekretuaren, ekainaren 3koaren, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzkoren, 32. Artikulua - Jendaurrean jartzeko izapiderako gutxieneko dokumentazioa betetzeko, jarraian, HAPBren aldaketa honetan zehaztutako antolamendu xehatuaren ebazpen nagusiak azaltzeko laburpena jaso da.

Planak eta hirigintza-antolamendurako gainerako tresnak onartzeko edo aldatzeko prozeduretan, plan eta tresna horiek bilduko dituen dokumentazioa aurkezteaz gain, honako alderdi hauek adieraziko dituen laburpen exekutiboa jarri beharko da jendaurrean:

a) Zenbait eremutan proiektatutako antolamenduak indarrean dagoen antolamendua aldatzen duenean, eremu horien mugaketa, kokapenaren planoarekin eta aldakuntzaren zenbaterainokoarekin. Egungo egoera eta antolamenduak aurreikusitako etorkizuneko irudia konparatzeko aukera emango duten informazio grafikoko planoak edo tresnak txertatuko dira.

b) Hala badagokio, hirigintza-antolamendua edo egikaritzeko prozedurak eteten diren eremuak, eta etendura horren iraupena.

EGITURAZKO ANTOLAMENDUA (ELGOIBAR HAPO)

Azpieremuaren azalera	1.093 m ²
Lurzoruaren Sailkapena	Hiri-lurzorua
Kalifikazio globala	A.20 Eraikuntza irekiko bizitegi-lursaila

Elgoibarreko Aizkorri 3. sektoreko 4 H.E.U. partzelarako Plan Bereziaren aldaketa honen bidez, ondoren hori HAPOk 7.A.2 - Santa Klara 19 azpiero izendatu zuenerako, partzela horren antolamenduaren berriazko ezaugarriak birdefinitu dira.

Ondoren, egungo Hiri Antolamenduko Plan Berezian zehaztutako eraikuntza-parametroen eta aldaketa honek proposatutakoen arteko laburpena jaso da. Aldatutako zehaztapenak urdinez adierazi dira.

A) ERAIKUNTZAREN BALDINTZAK


		HAPB 2011	HAPB ALDAKETA	
HIRIGINTZA-ERAIKIGARRITASUNA	1. PARTZELAREN AZALERA	591 m ²	591 m ²	
	SESTRA GAINEKO ERAIKIGARRITASUNA	BIZITEGIA	2.308 m ²	2.308 m ²
		MERKATARITZA	591 m ²	0 m ²
		APARKALEKUA ETA OSAGARRIAK	0 m ²	3.546 m ²
	SESTRA AZPIKO ERAIKIGARRITASUNA	Ez da zenbatzen	Ez da zenbatzen	
	SESTRA GAINEKO GEHIENENKO SOLAIRU KOP.	BS+4S+EA	BS+4S+A(I)	
	SESTRA AZPIKO GEHIENENKO SOLAIRU KOP.	(3)	1	
ETXEBIZITZAK	26	26		
FORMA-PARAMETROAK	ERAIKUNTZAREN GEHIENENKO ALTUERA (GAILURRAREN ALTUERA)	+69,25 i.m.g.m. (+71,95 i.m.g.m.)	+72,75 i.m.g.m. (+72,75 i.m.g.m.)	
	ERAIKUNTZAREN SESTRA	+52,25 i.m.g.m.	+51,25 (±0,50) i.m.g.m.	
	BIDEAREKIKO GUTXIENENKO TARTEA (Santa Klara Kalea)	3,00 m	3,00 m	

B) ERABILERAREN BALDINTZA OROKORRAK


Erabileraren baldintza orokorrak "A.20 Etxebizitzarako eraikuntza irekia" eremu globalerako ezarritakoak dira ("2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentua).

		HAPB 2011	HAPB ALDAKETA
SESTRA GAINEAN	ATIKO SOLAIRUA	-	BIZITEGIA
	ESTALKIPEKO SOLAIRUA	OSAGARRIA	-
	EREDU-SOLAIRUA	BIZITEGIA	BIZITEGIA
	LEHENGO SOLAIRUA	-	BIZITEGIA ETA OSAGARRIAK
	BEHE SOLAIRUA	MERKATARITZA	APARKALEKUA ETA OSAGARRIAK
SESTRA AZPIAN	ERDISOTO SOLAIRUA	-	APARKALEKUA ETA OSAGARRIAK
	SOTO SOLAIRUA	APARKALEKUA	-

Dokumentu grafiko hauek jaso dira, egungo egoera eta proposatutako antolamendu berria konparatzeko.



2011ko HAPBan egungo egoeraren ebaketak




HAPBaren aldaketa honetan proposatutako egoeraren ebaketak






2011ko HAPB Egungo antolamendua




HAPBaren aldaketan proposatutako antolamendua



Partzelan gehieneko bolumen eraikigarria eremuan barneratuta erakusteko irudiak ere jaso dira.




Hiri-inguruneko barneraketa adierazteko ebaketa




Eraikin mugakideen gailurraren eta teilatu-hegalaren kotak

Bilbon, 2024ko ekainean



Fdo: PERU CAÑADA OMAGOGEASCOA




BILBAO ARCHITECTURE TEAM, S.L.P.



Fdo: XABIER ARRANZ DÍEZ

BILBAO ARCHITECTURE TEAM, S.L.P.

LANA:	7.A.2 AZPIEREMUA– SANTA KLARA 19 HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIAREN TESTU BATEGINAREN ERAGIN AKUSTIKOARI BURUZKO AZTERLANA
KOKAPENA:	7.A.2 Azpierzemua– Santa Klara 19 Elgoibar (Gipuzkoa)
ESKATZAILEA:	BILBAO ARCHITECTURE TEAM, S.L.P.
ERREFERENTZIA:	240514102
DATA:	2024ko ekainak 4a

Deskribapena	7.A.2 AZPIEREMUA– SANTA KLARA 19 HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIAREN TESTU BATEGINAREN ERAGIN AKUSTIKOARI BURUZKO AZTERLANA		
Kokapena	Helbidea	7.A.2 Azpierzemua– Santa Klara 19	
	Herria	Elgoibar	
	Probintzia	Gipuzkoa	
Eskatzailea	Izena	BILBAO ARCHITECTURE TEAM, S.L.P.	
	IFK	B95721700	
	Helbidea	Calle Gran Vía de Don Diego López de Haro, 2 - 7	
	K.P.	48001	
	Herria	Bilbao	
	Probintzia	Bizkaia	
	Helbidea	Polígono Empresarial Pereiro de Aguiar	
	Central	Vial Centro Comercial, parcela 11, 32710, Ourense	
		Egoitzak: Ourense – Vigo – A Coruña – Lugo	
	Teléfono	693 66 55 44	
	e-mail	info@sonen.es	web www.sonen.es
		 Óscar Outumuro Cid Laboratorio Zuzendaria	 Pablo Gómez Pérez Zuzendari Teknikoa
Data	2024ko ekainaren 4a	(04 Ber.)	

AURKIBIDEA

1. XEDEA.....	4
2. ARAUDI ETA LEGEDI APLIKAGARRIA	5
2.1. ARAU-ESPARRUA	5
2.1.1. EUROPAKO ESPARRUA	5
2.1.2. ESPARRU NAZIONALA.....	5
2.1.3. AUTONOMIA-ESPARRUA	8
2.1.4. TOKIKO ESPARRUA	9
2.2. ESKAKIZUN AKUSTIKO APLIKAGARRIAK	9
3. AZTERKETA-INGURUNEA	11
3.1. KOKAPENA	11
3.2. INGURUNEAREN EZAUGARRIAK	12
3.3. AURREIKUSITAKO GARAPEN BERRIAREN EZAUGARRIAK	13
4. MAPA AKUSTIKOA EGITEKO TRESNAK	14
4.1. SIMULAZIO-SOFTWAREA	14
4.2. EMAITZAK BISTARATZEA.....	14
5. SIMULAZIOA ETA EMAITZAK.....	16
5.1. INGURUNEAREN KONFIGURAZIOA	16
5.2. ZARATA-ITURRIEN KARAKTERIZAZIOA	18
5.3. SIMULAZIOA ETA EMAITZAK	22
5.3.1. GARAPEN BERRIAK ERAGINDAKO ZIRKULAZIOAREN ONDORIOZKO ZARATA-MAILA OROKORRA ..	22
5.3.2. EGUNGO ZARATA-MAILA OROKORRA.....	23
5.3.3. AURREIKUSITAKO ETORKIZUNeko ZARATA-MAILA OROKORRA.....	24
6. ONDORIOAK	29
7. TEKNIKARI ARDURADUNAK	31
8. I. ERANSKINA: ZARATA-MAPAK	32
8.1. EGUNGO EGOERA	32
8.1.1. EGUNEKO ZARATA-MAILA OROKORRA	32
8.1.2. ARRATSALDEKO ZARATA-MAILA OROKORRA.....	33
8.1.3. GAUEKO ZARATA-MAILA OROKORRA	34
8.2. AURREIKUSITAKO BEREHALAKO ETORKIZUNeko EGOERA	35
8.2.1. EGUNEKO ZARATA-MAILA OROKORRA	35
8.2.2. ARRATSALDEKO ZARATA-MAILA OROKORRA.....	36
8.2.3. GAUEKO ZARATA-MAILA OROKORRA	37
8.3. 20 URTERA BEGIRA AURREIKUSITAKO ETORKIZUNeko EGOERA	38
8.3.1. EGUNEKO ZARATA-MAILA OROKORRA	38
8.3.2. ARRATSALDEKO ZARATA-MAILA OROKORRA.....	39
8.3.3. GAUEKO ZARATA-MAILA OROKORRA	40

1. XEDEA

Honakoak eskatuta

BILBAO ARCHITECTURE TEAM, S.L.P. (hemendik Aurrera, **Eskatzailea**) IFK B95721700

Ondorengoari enkargatu dio:

Sonen, Centro de Acústica e Servicios de Telecomunicaciones, S.L.

- **Ingenieritza akustikoan** aditua den enpresa;
- **EKKL gisa erregistratua.** (Eraikuntzaren Kalitatea Kontrolatzeko Saiakuntzen Laborategia), Erreg. Zk. GAL-L-050;
- **2022-23 Saiakuntza Akustikoen Konparazio Programako** parte-hartzailea, Egiatzatze Erakunde Nazionalak (ENAC) akreditatutako laborategiak antolatua, ISO/IEC 17043 arauaren arabera interkonparazio akustikoko ariketen hornitzaile izan dena;
- **Kalitate-kudeaketaren** barne-sistema ezarrita du, UNE-EN ISO 17025 arauan ezarritako baldintzen arabera;

Honako lan hauek egitea:

- Elgoibarren (Gipuzkoa), 7.A.2 Azpierenmuan – Santa Klara 19an, bizitegi-garapen berriko eraikitze-proiektuaren **eragin akustikoari buruzko azterlana** egitea, bere egungo egoerarena, baita aurreikusitakoarena ere;
- Aztertutako egoerei dagozkien **zarata-mapak** aurkeztea, egunez, arratsaldez eta gauez;
- Dagokion **txosten teknikoa** idaztea, egindako prozedurarekin eta lortutako ondorioekin.

Dokumentu honetan zehazten den eragin akustikoari buruzko azterlana, ondorengo datuen kalkuluan oinarritzen da: metodo estandarizatuen arabera, zarata-iturri batek edo gehiagok bere eragin-eremu hurbilenean duen soinu-aztarnean, hain zuzen; modu horretan inguruko lurzoruen edota eraikinen gain izango den eragina aurreikusi daiteke. Lortutako emaitzei esker, indarreko araudian ezarritako mugabaliok lortzeko edo gainditzeko egoera kritikoak ebaluatuko eta aurreikusiko dira, hala egoera horiek kontrolatzeko edota egokitzeke neurri zuzentzaileak planifikatuko dira.

2. ARAUDI ETA LEGEDI APLIKAGARRIA

2.1. ARAU-ESPARRUA

2.1.1. EUROPAKO ESPARRUA

Europar Batasunak urteak daramatza zarataren aurka borrokan bere ingurumen-politikaren esparruan, zuzentarauen bidez. Horiek egungo zarata-iturri mota desberdinek sortutako kutsadura akustikoa murriztea dute helburu.

2002. urtean ekainaren 25eko **2002/49/EE Zuzentaraia**, giro-zarataren ebaluazioari eta kudeaketari buruzkoa, indarrean jarri zen. Horren bidez, batetik, ikuspegi bateratua ezarri nahi da, ingurumen-zaratak eragindako ondorio kaltegarriak zein eragozpenak saihesteko, horiei aurre hartzeko edo murrizteko; eta, bestetik, oinarri zientifikoa sortu nahi da, modu bateratuan zarata-iturri nagusien isuriak murrizteko neurriak hartu ahal izateko.

Zuzentarau hori *2003ko abuztuaren 6ko Gomendioarekin osatu zen, hau da, aireontzietatik, ibilgailu-eta trenbide-trafikutik eratorritako industria-zaratarako berrikusitako behin-behineko kalkulu-metodoei buruzko orientabideei eta isurpen-datuei buruzkoarekin*. Gomendio horretan, zarata-fokuak ebaluatzeke kalkulu-metodo estandarrek ezarri ziren. Bereziki, Europako Batzordeak metodo bateratua garatzea erabaki zuen, bide- zein trenbide-trafikoaren eta aireportuen zarata ebaluatzeke, baita industria-jarduerena eta -fokuena ere. Metodo horri **CNOSSOS-EU** (*Common NOise aSSessment methOdS*) deitu zaio, bere helburu nagusia da Zarata Mapa Estrategikoak egiteko metodologia bakarra ezartzea, estatu kide bakoitzean lortutako emaitzak fidagarriak, errealistak eta, gainera, elkarren artean konparagarriak izan daitezen. Horrez gain, CNOSSOS-EU metodoa funtsezko tresna da, foku horiek sortzen duten zarata-mailaren kalkulu orokorra egiteko, baita herritarrek ingurune-zaratarekiko duten esposizioa ebaluatzeke ere. Informazio horri esker, Estatu Kideek edozein ingururen eragin akustikoaren maila ezagutu eta zarataren aurkako ekintza-planak modu egokian diseinatu ahal izango dituzte, orain arte erabilitako metodologiarekin lortzen zena baino zehaztasun eta eraginkortasun handiagoarekin.

2.1.2. ESPARRU NAZIONALA

Zaratari buruzko azaroaren **17ko 37/2003 Legearen** bidez, Europako Erkidegoko zuzentaraia ordenamendu juridiko nazionalera egokitu zen. Lege horren xedea aurreko zuzentaraia transposizioa egiteaz gain, Espainian kutsadura akustikoari buruz dauden antolamenduak kohesionatzea ere bada.

Lege horren aplikazio-eremuak edozein motatako zarata-igorle guztiak jasotzen ditu, baita hartzaile akustiko diren eraikinak ere, honakoak izan ezik: euren izaeragatik araudi espezifikoak duten jarduerak (lan-giroa edo giro militarra) edota tokiko ordenantzen bidez araututako etxe- edo auzo-jarduerak ere.

Zarataren Legean, kutsadura akustikoari buruz hitz egiteko funtsezko bi kontzeptu definitu dira:

- **Igorle akustikoa**, hots, kutsadura akustikoa sortzen duen edozein jarduera, azpiegitura, ekipo, makineria edo portaera.
- **Kalitate akustikoa**, espazio baten ezaugarri akustikoen eta bere esparruko jardueren arteko egokitze-maila da, besteak beste, soinu-immisio eta -igorpen mailaren arabera ebaluatua.

Gobernuak dagokion araudia ezarri behar du, lurraldea zonakatzen duen eremu akustiko mota bakoitzean aplikatu beharreko *kalitate akustikoko helburuak* finkatzeko, hau da, lurzoru-motaren arabera. Hala, lurralde osoan kutsadura akustikoaren aurkako gutxieneko babes-maila bermatuko da.

1513/2005 Errege Dekretuak, abenduaren 16koak, ingurumen zarataren ebaluazioari eta kudeaketari dagokionez, Zaratarri buruzko Legea garatzen du. Bertan, ingurumen-zarataren igorpenak eragindako ondorio kaltegarriak zein eragozpenak saihesteko, horiei aurre hartzeko edo murrizteko esparrua definitu da. Horrez gain, Espainiako ordenamendu juridikoa osatuko du ondorengo tresna bere barne jasota: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko ekainaren 25eko 2002/49/EE Zuzentaraua, ingurumen-zarataren ebaluazioari eta kudeaketari buruzkoa.

Dekretu horretan definituta daude **zarata-indizeak**, baita horiek ebaluatzeko metodoak eta horiei lotutako ondorio kaltegarriak ere. Zarata-indizeetan honako hauek nabarmentzen dira:

- L_d (eguneko zarata-indizea): egunez, 7:00etatik 19:00etara, eragozpenari lotutako zarata-indizea.
- L_e (arratsaldeko zarata-indizea): arratsaldez, 19:00etatik 23:00etara, eragozpenari lotutako zarata-indizea.
- L_n (gaueko zarata-indizea): gauez, 23:00etatik 7:00etara, eragozpenari lotutako zarata-indizea.
- L_{den} (egun-arratsalde-gaueko zarata-indizea): eragozpen globalari lotutako zarata-indizea

Errege Dekretu horrek, gainera, Zarata Mapa Estrategikoen elaborazioa ezartzen du, biztanleek ingurumen-zaratarekiko duten esposizioa zehazteko, baita zarata horri aurre hartzeko eta hura murrizteko Ekintza Planak ere barne hartzen ditu, bereziki, zarata-mailak osasunean ondorio kaltegarriak izan ditzakeenean.

Urriaren 19ko **1367/2007 Errege Dekretuak** osatzen du Zarata Legearen arau-garapena honakoei dagokienez: zonakatze akustikoak, kalitate-helburuak eta emisio akustikoak; eta, ondoren, uztailearen 6ko 1038/2012 Errege Dekretuaren aldaketa. Hala, alderdi garrantzitsuenen artean, hauek nabarmentzen dira:

- ✓ Beste zarata- eta bibrazio-indize batzuen definizioa, hala nola:
 - L_{Amax} , ebaluazio-aldian zehar, gehieneko soinu-mailak ebaluatzeko.
 - $L_{K,x}$, eragozpenak eta soinu-mailak ebaluatzeko, honakoen maila zuzenketak eginda: sortzen diren osagai tonalena, maiztasun txikiko osagaiena edo bulkada-zaratena, epe luzerako batez bestekoa aterata, "x" ebaluazio-aldian.
 - L_{aw} , ebaluazio-aldian, eraikinen barne espazioetan, gehieneko bibrazio-mailen eragozpena ebaluatzeko.
- ✓ Indize horien aplikazioek, biztanleriarengan eragindako ondorioak zein eragozpenak eta ingurumenean duten eragina.
- ✓ **Eremu akustiko** motak mugatzea:
 - **a Mota**: Bizitegi-erabilerako lurzoruak nagusi diren sektoreak.

- **b Mota:** erabilera industrialeko lurzoruak nagusi diren sektoreak.
 - **c Mota:** jolaserako eta ikuskizunetarako lurzoruak nagusi diren sektoreak.
 - **d Mota:** c motako eremuetan jasotakoa ez bestelako hirugarren sektoreko erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-sektoreak.
 - **e Mota:** Osasun-, hezkuntza- eta kultura-erabilerako lurzoruak nagusi dituzten sektoreak.
 - **f Mota:** garraio-azpiegiturako sistema orokorrek edo horiek behar dituzten ekipamendu publikoek eragindako sektoreak.
 - **g Mota:** Babes bereziko natura-espazioak.
- ✓ Area bakoitzerako **kalitate akustikoaren helburuak** ezartzea. 1367/2007 Errege Dekretuaren II. eranskineko A taularako, 1038/2012 Errege Dekretuak ezarritako aldaketen arabera, *egungo area urbanizatueta*n aplikatu beharreko kalitate akustikoaren helburuak, euren kokapenagatik dagokien eremu akustikoaren arabera izango dira. Horiek ondorengo taulan jasota daude:

KALITATE AKUSTIKOKO HELBURUAK

A taula. Dauden eremu urbanizatueterako zarataren kalitate akustikoko helburu aplikagarriak.

Eremu akustiko mota		Zarataren adierazleak		
		L _d	L _e	L _n
E	Osasun-, hezkuntza- eta kultura-erabilerako lurzoruak nagusi diren eta hots-kutsaduraren aurkako babes berezia behar lurralde-esparru edo -sektoreetarako zehaztutakoekin.	60	60	50
A	Bizitegi-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak.	65	65	55
D	c) paragrafoan jasotakoa ez bestelako hirugarren sektoreko erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo sektoreak.	70	70	65
C	Jolaserako eta ikuskizunetarako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak.	73	73	63
B	Industria-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak.	75	75	65
F	Garraio-azpiegiturako sistema orokorrek edo horiek behar dituzten ekipamendu publikoek eragindako lurralde-esparru edo -sektoreak.	(1)	(1)	(1)

(Iturria: E.D. 1367/2007)

Zarataren kalitate akustikoaren helburua *gainerako eremu urbanizatueterako*, aplikatu beharreko aurreko taularen balioa ez gainditzea izango da, hau da, ezarritako balioa baino 5 dezibelio gutxiago izan beharko ditu.

Mugatutako naturaguneei aplikatu beharreko zarataren kalitate akustikoaren helburuei dagokienez, azaroaren 17ko 37/2003 Legearen 7.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, g) motako eremu akustikoak dira, kutsadura akustikoaren aurkako babes berezia behar dutelako. Beraz, kasuan kasurako helburuak ezarriko dira, horretarako, haien kalifikazioa justifikatzen duen berariazko beharrian hartuko dira kontuan.

Bestalde, zona lasaietan, aglomerazioetan eta kanpo eremuan, aplikatu beharreko kalitate akustikoaren helburua honakoa izango da: eremu horietan soinu-mailak II. eranskineko A taulan ezarritako zarata-immisioaren indizeen balioen azpitik mantenduko dira, balio horren 5 dezibelio azpitik, hain zuzen. Betiere, garapen jasagarriarekin bateragarria den kalitate akustikorik onena mantendu nahi da.

2.1.3. AUTONOMIA-ESPARRUA

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, EAEko kutsadura akustikoari buruzko **213/2012 Dekretuak**, bere 31. artikuluan, eremu urbanizatueterako eta etorkizuneko garapeneterako **kalitate akustikoaren helburuen** balioak ezartzen ditu, honako baldintzatzaileak kontuan izanda:

1. Kanpo-espazioko kalitatearen helburu-balioak, **egungo eremu urbanizatueterako**, 213/2012 Dekretuaren I. eranskineko 1. zatiaren A taulan zehaztutakoak dira, ondoren 2. taulan ageri direnak.
2. **Etorkizunean hirigintza-garapena** egitea aurreikusten den eremu akustikoen, hirigintza-erabileren birkalifikatzeak barne, kalitate-helburuak izango dituzte. Horiek kanpo-espazioan egungo eremu urbanizatuena baino **5 dBA murriztagoak** izango dira.

KALITATE AKUSTIKOKO HELBURUAK

A taula. Dauden eremu urbanizatueterako zarataren kalitate akustikoko helburu aplikagarriak.

Eremu akustiko mota		Zarataren adierazleak		
		L _d	L _e	L _n
E	Osasun-, hezkuntza- eta kultura-erabilerako lurzorua nagusi diren eta hots-kutsaduraren aurkako babes berezia behar lurrealde-esparru edo -sektoreetarako zehaztutakoekin.	60	60	50
A	Bizitegi-erabilerako lurzorua nagusi diren lurrealde-esparru edo -sektoreak.	65	65	55
D	c) paragrafoan jasotakoa ez bestelako hirugarren sektoreko erabilerako lurzorua nagusi diren lurrealde-esparru edo sektoreak.	70	70	65
C	Jolaserako eta ikuskizunetarako lurzorua nagusi diren lurrealde-esparru edo -sektoreak.	73	73	63
B	Industria-erabilerako lurzorua nagusi diren lurrealde-esparru edo -sektoreak.	75	75	65
F	Garraio-azpiegiturako sistema orokorrek edo horiek behar dituzten ekipamendu publikoek eragindako lurrealde-esparru edo -sektoreak.	(1)	(1)	(1)

(1) Beren eremuaren mugan, mugakide dituen eremuen zonakatzeko motari dagozkionak izango dira.

Oharra: kanpoaldean aplikatu daitezkeen kalitate akustikoko helburuak lurretik 2 metroko garaiera neurtuko dira; leihodun fatxadetan kanpoko aldean, berriz, eraikinaren altuera guztietan neurtuko dira.

(Iturria: 213/2012 Dekretua)

Era berean, 213/2012 Dekretuak bere I. eranskineko D taulan ezartzen ditu azpiegitura berriei kanpo ingurumenean aplikatzeko **zarata-inmisioaren muga-balioak**.

D taula. Errepide-, trenbide- eta aireportu-azpiegitura berriei aplikatzeko zarata-inmisioaren muga-balioak.

Eremu akustiko mota		Zarata-adierazleak		
		L _d	L _e	L _n
E	Osasun-, hezkuntza- eta kultura-erabilerako lurzorua nagusi diren eta hots-kutsaduraren aurkako babes berezia behar lurrealde-esparru edo -sektoreetarako zehaztutakoekin.	55	55	45
A	Bizitegi-erabilerako lurzorua nagusi diren lurrealde-esparru edo -sektoreak.	60	60	50
D	c) paragrafoan jasotakoa ez bestelako hirugarren sektoreko erabilerako lurzorua nagusi diren lurrealde-esparru edo sektoreak.	65	65	55
C	Jolaserako eta ikuskizunetarako lurzorua nagusi diren lurrealde-esparru edo -sektoreak.	68	68	58
B	Industria-erabilerako lurzorua nagusi diren lurrealde-esparru edo -sektoreak.	70	70	60

Oharra: kanpoaldeko muga-balioak lurretik 2 metroko garaiera dute erreferentziatuz, eta eraikuntzaren garaiera guztiak, berriz, leihodun fatxadetan kanpoaldeari dagokionez.

(Iturria: 213/2012 Dekretua)

213/2012 Dekretuak, halaber, bere I. eranskineko B taulan ezartzen ditu etxebizitza-, bizitegi-, osasun-, hezkuntza- edo kultura-erabileretara bideratutako eraikinen barrualdeko esparru bizigarriari aplikatzeko zarataren kalitate akustikoko helburuak.

Eraikinaren erabilera (2)	Esparru mota	Zarataren adierazleak		
		L_d	L_e	L_n
Etxebizitza edo bizitegi-erabilera	Gelak	45	45	35
	Logelak	40	40	30
Ospitalea	Egonguneak	45	45	35
	Logelak	40	40	30
Hezkuntza- edo kultura-erabilera	Ikasgelak	40	40	40
	Irakurketa-gelak	35	35	35

B Taula. Eraikinen barrualdeko esparru bizigarriari aplikatzeko zarataren kalitate akustikoko helburuak

2.1.4. TOKIKO ESPARRUA

2005. urtean, Elgoibarko Udalak Irekitzeko Baimena behar duten Establezimenduen Barruko Zarata Kontrolatzeko, Udalaren Jarduera Arautuko duen Udal Ordenantza onetsi zuen. Horren bidez, jendearentzako irekita dauden ostalaritza eta sukaldaritza establezimenduetan barruko zarata-maila eta funtzionamendurako ordutegia arautuko eta kontrolatuko da, bai aldez aurretik legeztatuta dauden jardueretan, bai berriki zabaldu direnetan ere. Hirigintza-garapen berriei dagokienez, Udalak ez du kutsadura akustikoaren aurkako berariazko araudia jasotzen duen ordenantzarik.

2.2. ESKAKIZUN AKUSTIKO APLIKAGARRIAK

Bide, trenbide, hirigintza, etab.en garapen berri orok azterlan akustikoa egin beharko du, eraginpeko ingurunearen soinu-aztarna jasotzeko, bere hasierako egoeran nahiz etorkizunerako aurreikusitakoan. Soinu-aztarna horiek inguruko Zarata Mapen bidez adierazten dira. Mapa horietan, eremuko soinu-iturriek lurzoruan eta eraikinetan duten eragin akustikoa adierazten da.

213/2012 Dekretuan adierazitakoaren arabera, kutsadura akustikoaren arloan neurri zuzentzaileak, prebentziozkoak edo babes-neurriak diseinatzeko helburua duten **zarata-mapak** 2 metroko altueran ebaluatuko dira. Bestalde, **fatxada-mapek** igorle akustikoetatik datorren soinua adierazten dute, kanpoaldera leihoa duten fatxadetan eragiten duena. Planoko fatxada-mapek (bidimentsionalek) fatxada bakoitzak jasotzen duen gehienezko zarata-maila erakusten dute; hiru dimentsioko mapek, berriz, eraikineko solairu bakoitzaren zarata-maila adierazten dute.

Elgoibarko Udalak, 2015 urteaz geroztik, zonifikazio akustikoa du udalerrian. Horren arabera, 1. irudian ikus daitekeenez, aztergai den garapenaren partzela kokatzen den eremua A motako bizitegi-erabilerako lurzorua nagusi den eremu batean dago. Beraz, 2.1 atalean deskribatutakoa kontuan hartuta, eta lurraldearen zonifikazio akustikoa erreferentziatzen hartuta, 5. taulan laburbildutako **egungo eremu urbanizatuentzat** ezarritako **Kalitate Akustikoko Helburuak** (KAH) hartu behar dira erreferentziatzen.



1. irudia. Elgoibarko udalerriko zonifikazio akustikoa garapen berriaren inguruan

EREMU AKUSTIKO MOTA	KALITATE AKUSTIKOKO HELBURUAK ^[1]		
	L_d (dBA)	L_c (dBA)	L_n (dBA)
BIZITEGI-ERABILERA NAGUSIA (gaur egun)	65	65	55

[1] Kalitate akustikoaren helburu horiek 2 metroko garaieran eta leihodun fatxaden altuera guztiei dagozkie.

5. taula. Analisi-inguruneari aplikagarriak diren kalitate akustikoko helburuak

3. AZTERKETA-INGURUNEA

3.1. KOKAPENA

Azterketa-eremua 7.A.2 Azpierrezuan– Santa Klara 19-an dago, Santa Klara auzoan, Elgoibarren (Gipuzkoan).



2. irudia. Garapen berrirako aurreikusitako partzela eta kokapena

Hirigintza-garapen berria proiektatuko den eremuaren gune osoak 1000 m² inguru ditu eta, aurreko irudian antzeman bezala, gaur egun Santa Klara kalearekin mugatzen du.


3.2. INGURUNEAREN EZAUGARRIAK

Santa Klara kalea, garapen berria egitea aurreikusten den partzelaren mugakide dena, gaur egun Elgoibarren sarbideetako bat da eta ipar-mendebaldera GI-2636 errepidearekin eta mendebaldera GI-3324 errepidearekin zuzenean lotzen da. Hegoaldean, Santa Klara kaleak N-634 errepide nazionalarekin bat egiten du. Errepide horrek Elgoibarko hirigunea igarotzen du ipar-mendebalderantz eta Deba ibaia zeharkatzen du.



3. irudia. Garapen berriaren ingurunea eta inguruko errepide nagusiak


Garapen berriaren azpierenua bizitegi-eremua da, hiri-lurzoru finkatuaren parte dena, proiektu orokorrean adierazten den bezala, hego-mendebaldean lurzoru urbanizaezinez inguratuta dago eta ipar-mendebaldean, aldiz, Santa Klara kalea dago, hiri-eremu osoa egituratzen duena.




4. irudia. Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren zonakatzetxe zehatua garapen berriaren inguruan

3.3. AURREIKUSITAKO GARAPEN BERRIAREN EZAUGARRIAK

Esan bezala, aipatutako eremuan bizitegirako garapen berria egitea aurreikusten da, 4 solairutan banatutako 24 etxebizitzadun eraikina izango duena. Halaber, eraikinak sestra azpian 3 solairu ditu, etxebizitzaren aparkalekurako; behe solairua erabilera mistorako, sarrerako ataria barne; eta estalkipeko solairua, berriz, erabilera osagarriko. Eraikinaren gehieneko azalera oinplanoan 590 m² inguruko azalera hartzen du eta itsasoaren mailatik 72,75 m-ko gehieneko kota du.



5. irudia. Eraikinaren ebaketa eta oinplanoa



6. irudia. Aurreikusitako garapen berriaren kokapena eta infografia

4. MAPA AKUSTIKOA EGITEKO TRESNAK

4.1. SIMULAZIO-SOFTWAREA

Aztergai den ingurunea modelatzeko eta ingurumenean eragin akustikoa simulatzeko, **CadnaA** (*Computer Aided Noise Abatement*) simulazio-softwarea erabili da, 2023 MR1 bertsioan, Datakustik enpresak garatua.

Software horren bidez, ingurune jakin batean zaratarekiko esposizio-mailak kalkulatu, iragarri, aurkeztu eta baloratu ahal dira, aldeztu aurretik zehaztutako zarata-iturrien arabera. CadnaA C/C++ programazio-lengoan ezarrita dago eta ondorengoekin komunikazio ezin hobea izateko aukera ematen du: WindowsTM aplikazioak, testu-prozesadoreak, kalkulu-orriak, CAD programak eta GIS datu-baseak.

Proposatutako inguruneko zarata-aztarna kalkulatzeko, CNOSSOS-EUn deskribatu den kalkulu-metodoa hartu da oinarritzat, 2.1 atalean adierazitakoaren arabera. Metodo horrek eremu irekiko soinua arintzeko protokoloa estandarizatu du.



7. irudia. CadnaArekin eskuratutako mapa akustikoaren adibidea

4.2. EMAITZAK BISTARATZEA

GIS (*Geographic Information Systems*) datu geografikoak kudeatzeko, aztertzeko eta aurkezteko sistema da eta informazio-pakete jakin batzuk erabilita irudikatzen da, hala nola: mapak, globoak, datu-pakete geografikoak etab.

ESRI informazio geografikoko sistemen lehen teknologia diseinatzen eta garatzen duen enpresa da. Hala, **ArcGIS** izeneko tresna ahaltsua garatu du, datu geografikoak tratatzeko.


ArcGIS paketeak ArcGIS Desktop izeneko edizio-adarra du eta horren barne daude ArcInfo, ArcEditor, ArcView eta ArcMap. Azken hori aukeratu da, 10.1 bertsioan, trazaduren datuak editatzeko eta irudikatzeko.

GIS tresna hori hainbat arrazoiengatik erabili ohi da: batez ere erosotasunagatik, aplikazio guztiak dauzkalako eta datu-base geografikoan kontuan hartu beharreko alderdi guztiak erabiltzen dituelako. Gainera, datu-base geografikoak tratatzeko oso baliagarria den datu-mota erabiltzen du: **shapefile**.

ESRI Shapefile (SHP) formatua datu espazialen jabe-formatu irekia da, ESRI enpresak garatua. Hasieran, ArcGISekin erabiltzeko sortu zen, baina gaur egun, *de facto* formatu estandarra bihurtu da, ESRI produktuek GIS merkatuan duten garrantziagatik. Era berean, Sustapen Ministerioak zarata-mapak digitalean entregatzean eskatzen duen formatua hori da.

Shapefile biltegitratze digitaleko formatu bektoriala da eta bertan gordetzen dira elementu geografikoen kokapena eta horiekin lotutako atributuak. Formatuak ez du topologia-informazioa gordetzeko gaitasunik.

ArcGISek CadnaA-rekin komunikatzeko aukera ematen du; hala, simulazioan sortutako zarata-mailen geruza esportatu daiteke CadnaA-tik, baita interesgarritzat jo daitezkeen beste geruza batzuk ere, eta ArcGISen bistara daitezke proiektua osatzen duten gainerako geruzekin.



8. irudia. ArcGISeko datu-geruzen adibidea

5. SIMULAZIOA ETA EMAITZAK

Deskribatutako inguruneko zarata-mailen kalkulu prediktiboa egiteko, CadnaA software profesionala erabili ohi da, 2023 MR1 bertsioan, bere inguruan zarata-iturriek sortutako kutsadura akustikoa kalkulatzeko, ebaluatzeko eta horri aurre hartzeko bereziki diseinatuta dagoelako.

5.1. INGURUNEAREN KONFIGURAZIOA

Eskatzaileak emandako datuetan oinarrituta, CadnaA-n modelatu da aztergai den ingurunea eta horren eragina, eremu libreko soinuaren hedapenean. Modelatze hori 3 fasetan egin da:

☞ 1. FASEA

Lehenengo fasean, CadnaA konfiguratu da soinu-inpaktuaren simulazioa egiteko:

- **Konfigurazio orokorra**

Lehenik eta behin, CNOSSOS-EU kalkulu-metodoa estandartzat definitu da kanpo ingurunean nagusi diren zarata-iturriek sortutako zarata-mailak kalkulatzeko. Kasu honetan, iturria garapen berriaren inguruko bideetatik igarotzen den trafikoa da.

Eguneko, arratsaldeko eta gaueko tarteei dagozkien ordu-tarteak ere definitu dira, indarreko legerian adierazitakoaren arabera, baita horietako bakoitzean ebaluatu beharreko zarata-indizeak ere (L_d , L_e eta L_n , hurrenez hurren).

- **Gogoeten konfigurazioa**

Gogoetak kalkulu mota horietarako, gehienez 2 gogoeta ordenarekin konfiguratu dira. Horrek esan nahi du 2. ordeneko gogoetara arte kontuan hartu behar direla.

Jardunbide egokien eskuliburuan oinarrituta, ura, kaleak eta errepideak, soinu arloan, erabat islatzailatzat hartzen dira ($G=0$). Eraikinak, berriz, partzialki xurgatzaileak dira ($G=0,2$) eta lurzoru bigunak zein lorategiak soinu-absortzio ertainekoak ($G=0,5$, irizpide kontserbatzailea).

- **Meteorologia-baldintzen konfigurazioa**

Metereologia-baldintzek soinuaren hedapenean duten eragina honela egituratzen da: soinua norabide guztietara hedatzeko baldintza atmosferikoak gertatzeko probabilitatea % 50 da egunez, % 75 arratsaldez eta % 100 gauez. Erreferentziako giro-tenperatura 10°C da eta hezetasun erlatiboa % 70.

- **LEDen (Lurreko Eredu Digitalaren) konfigurazioa**


Inguruneko 3D ereduak lortzeko, kota-puntuen triangulazio-teknika aplikatu da, kota negatibodun igoerlek lurzoru positiboko kotara eramanda.

- **Kalkulu-sarearen konfigurazioa**

Azkenik, kalkulurako sarea eratu da, 10 metro x 10 metrokoa, azterlanaren eremua aztertzeko adinakoa, eta lurraren mailatik gora 2 metroko jasotze-altueran, indarreko legeriak adierazi bezala.

2. FASEA


CadnaAn kalkulu-parametroak konfiguratu ondoren, aztergai den ingurunearen eredia implementatu da, hau da: lurzoruaren sestra-kurbak, inguruko eraikuntzak eta soinuaren hedapen akustikoa eragina izan dezaketen gainerako objektuak.



9. irudia. Garapen berriaren inguruko eremu bateko lurzoruaren eredu digitalaren adibidea

3. FASEA


Hirugarrenik, CadnaA ereduaren inguruneak igorle akustiko guztiak ezarri dira, halakotzat hartuta bide-ardatzak. Horiek luraren eredu digitalera egokitu dira; baita, beste parametro batzuen artean, bide-ardatz bakoitzaren eguneko batez besteko zirkulazio-intentsitateetara; CNOSSOS-EU ereduaren adierazitako ibilgailu-kategorien ehunekoetara; eta tarte bakoitzerako ezarritako gehieneko abiaduretara.



10. irudia. 3D ereduako zati baten ikuspegia (egungo egoera)

5.2. ZARATA-ITURRIEN KARAKTERIZAZIOA


Aztergai den eremua, 3.1 atalean adierazi den bezala, Santa Klara auzoan dago, Elgoibarko hirigunean, egungo hiri-lurzoru finkatu izendatutako eremuan. Eremu horretako partzelak erabat eraikita daude eta hurrengo urteetan ez da aurreikusten bizitegi-eraikinen kopurua handitzea, inguruko bideetan trafikoa nabarmen aldatzea suposatuko duenik ez behintzat.



11. irudia. Aztergai den ingurunekeo bideak, zarata-iturri nagusizat hartu direnak

Azterketa honen ondorioetarako, 7.A.2 Azpierrezuan– Santa Klara 19-n proiektatutako garapen berrien eragin akustikoa ebaluatzeko, zarata-iturri nagusizat hartu dira hartatik hurbilen dauden bideak, hau da: Santa Klara kalea (1) eta GI-2636 (2), N-634 (3) zein GI-3324 (4) errepideak, 11. irudian adierazten diren bezala. Hala ere, AP-8 (5) autobidea hirigunetik hurbil dagoenez, aztertu beharreko eremuan eragina izan dezakeen zarata-iturritzat hartu da. Halaber, kontuan hartuko da bizitegi-kaleetako trafikoa (6), garapen berriaren inguruko gainerako partzela eraikietara sarbidea ematen baitute.

Azterlan honen kasuan, Elgoibarko aglomerazioko Zaraten Mapa Estrategiko (MER) berriena Elgoibarko Udalerriko Zarata Mapa da, 2014. urtean argitaratua eta eskatzaileak aurkeztua. 12. irudian ikusten denez, mapa horretan udalerriko zarata-iturri guztiak jasotzen dira, bai bide-ardatz nagusiak, bai kaleak.



12. irudia. Elgoibarko udalerriko Zarata Maparen zarata-mailaren laburpena, garapen berriaren inguruan. Ezkerrean. egunez, erdigunean arratsaldez, eta eskuinean gauetz.

▪ EGUNGO BIDE-ARDATZAK

Azterlan honen abiapuntu gisa, beraz, analisi-ingurunearen soinu-aztarna hartu da erreferentziatzat, Elgoibarko Udalerriko Zarata Mapan argitaratua, aztertutako eremuko bide-ardatz guztiak biltzen dituen. Informazio horretan oinarrituta, ardatzen kalkulu-eredua trafikoaren eguneko batez besteko intentsitateekin, abiadurekin, ibilgailu-kategoriekin, CNOSSO-EU arauaren arabera, etab. konfiguratzan da.



13. irudia. Garapen berriaren inguruko egungo egoeraren Ld eguneko zarata-mailaren laburpena. Ezkerrean. Elgoibarko Zarata Mapan lortutako emaitzak, eskuinean. simulazioan lortutakoak

Azterketa-eremuan, eguneko simulazioan lortutako emaitzak Elgoibarko Zarata Mapak islatzen dituen antzekoak dira, eta, beraz, eremuaren azterketa akustiko orokorrerako hurbilpen egokitza hartzen da.



14. irudia. Garapen berriaren inguruko egungo egoeraren Ld arratsaldeko zarata-mailaren laburpena. Ezkerrean. Elgoibarko Zarata Mapan lortutako emaitzak, eskuinean. simulazioan lortutakoak

Azterketa-eremuan, arratsaldeko simulazioan lortutako emaitzak Elgoibarko Zarata Mapak islatzen dituenen antzekoak dira, eta, beraz, eremuaren azterketa akustiko orokorrerako hurbilpen egokitzat hartzen da.



15. irudia. Garapen berriaren inguruko egungo egoeraren Ld gaueko zarata-mailaren laburpena. Ezkerrean. Elgoibarko Zarata Mapan lortutako emaitzak, eskuinean. simulazioan lortutakoak

Azterketa-eremuan, gaueko simulazioan lortutako emaitzak Elgoibarko Zarata Mapak islatzen dituenen antzekoak dira, eta, beraz, eremuaren azterketa akustiko orokorrerako hurbilpen egokitzat hartzen da.

▪ BIDE-ARDATZAK AURREIKUSITAKO ETORKIZUNeko EGOERAN (BAI BEREHALAKO ETORKIZUNEAN, BAI 20 URTERA)

Aurreikusitako garapen berriaren eragin akustikoa ebaluatzeko, etxebizitza bakoitzari, irizpide kontserbadore gisa, 2 ibilgailu kalkulatu dira eta egunero ibilgailuko batez besteko 3 joan-etorri. Eskatzailearen datuetan oinarrituta, garapen berriak 24 etxebizitza izango ditu guztira eta horrek eguneko batez besteko zirkulazio-intentsitatea 144 ibilgailu/egun izatea suposatuko du. Joan-etorri horiek guztiak Santa Klara kalea eta N-634 lotzen dituen zatiari dagozkio, trafiko intentsitate hori errepide horrekin lotzeko soilik dela suposatuta.

Hala ere, GI-2636 errepidearekin lotzen den zatietan azpiestimaziorik ez egiteko, GI-2636 errepidera arteko eguneroko joan-etorriek % 25ean intentsitatea areagotuko dutela kontsideratuko da, hau da, guztira 36 ibilgailu/egun gehiago. 20 urteko etorkizuneko egoera kalkulatzeko irizpidetzat, bide guztietan zirkulazioa % 1,44 handituko dela jo da.


Trafiko-intentsitateen banaketa egin da inguruko bide-ardatzetan eta eguneko aldi bakoitzerako:

- Zirkulazioaren % 70 egunean zehar da (7:00-19:00 tartean);
- Zirkulazioaren % 25 arratsaldean zehar da (19:00-23:00 tartean);
- Zirkulazioaren % 5 gauean zehar da (23:00-7:00 tartean);

5.3. SIMULAZIOA ETA EMAITZAK

5.3.1. GARAPEN BERRIAK ERAGINDAKO ZIRKULAZIOAREN ONDORIOZKO ZARATA-MAILA OROKORRA


Lehenik eta behin, garapen berriaren inguruko inpaktu akustikoa aztertu da, gainerako bideetan eragiten duen trafikoagatik bereziki, 5.2 atalean ezarritako EBZZiko datuen arabera. Baldintza horietan ondorioztatu da, inguruneari ia ez zaiola eragiten ebaluazio aldi guztietan. Hala, esan daiteke proiektatutako bide berriaren zirkulazioa ez dela, berez, azterketaren xede den garapenaren eremu akustikoa Kalitate Akustikoko Helburuak gainditzearen eragile izango.



16. irudia. Garapenaren inguruko zarata-maila orokorrak, soilik hark sortutako zirkulazioak eragindakoak, aurreikusitako berehalako egoeran, egunean zehar, L_d (goian), arratsaldean, L_e (erdian) eta gauean, L_n (behean).

5.3.2. EGUNGO ZARATA-MAILA OROKORRA


Ezarritako 3D ereduari oinarrituta, inguruko bide garrantzitsuenak barneratzen dira, hau da, N-634, GI-2636, GI-3324, AP-8 errepidea eta Santa Klara kalea, baita garapenentik hurbilen dauden gainerako kaleak ere, eta bide horien EBlak aldatzen dira 5.2 atalean adierazitakoaren arabera. Ingurune berria konfiguratu ondoren, zarataren maila globalak simulatzen dira, tartean diren bide-ardatz guztietarako aurreikusten den trafikoaren ondorioz. Hona hemen emaitzak:



17. irudia. Egungo zarata-maila orokorra. Goian, egunez, erdian arratsalde, eta behean gauetz.

Simulazioan lortutako emaitzen arabera, garapen berriaren inguruko zarata-maila globalak, Santa Klara kalean eta azterketa-eremuko gainerako errepideetan zirkulazioak eragindakoak, Kalitate Akustikoko Helburuetarako ezarritako muga-balioen azpitik daude, bizitegi-erabilerako lurzorua nagusi den eremu akustikoetan, eta, bereziki, etxebizitza-eremuan, non egunean zein arratsaldean zehar 65 dBA-koa den eta gauean, berriz, 55 dBA-koa.

Sestra +51,25 m ($\pm 0,50$ m)-ko kotan ezarri da, egungo topografiaren arabera. Hala, proposamenaren bideragarritasun teknikoa bermatzeko, partzelaren azterketa geoteknikoaren aholkuak eta ondorioak jarraituta, **lurzoruaren hondeaketa-sakonera mugatzea proposatu da**. Hala, ordenantzan aipatzen diren 3 soto-solairuak egiteko aukera desagertzen da, eta sestrapeko eraikuntza-profila erdisotoko solairu bakarrera mugatuko da. Solairu hori hiru fatxadatan lurperatuko litzateke, Santa Klara kalera ematen duen frontean izan ezik, eta haren gainean sortuko litzateke eraikinaren beheko solairua. Solairu hori bere hiru fatxadatan lurperatuta egongo da, Santa Klara kalerako aurrealdean izan ezik. Horren gainean, eraikinaren beheko solairua hasiko da.

Bestalde, berriro orubeko Azterketa Geoteknikoaren gomendioak kontuan izanda, **planteatu da eraikuntza partzelaren hego-ekialdeko gunean kontzentratzea, maldarik kontrolatuena duen eremua baita eta lurzoruak eremuko gainerako lekuetan baino konposizio sendoagoa du**. Horrek teknikoki sestra azpiko azalera eraikigarria mugatzen du, indarreko hirigintza-araudiak libretzat jotzen duena, baina praktikan azpierrekuaren hego-ekialdean mugatuta dagoena.

Plangintza horretatik ondorioztatu da **ezinezkoa dela eraikinaren erdisotoko solairuan arauan ezarritako aparkaleku-plaza guztiak egitea. Beraz, hori betetzeko eraikinaren beheko solairua ere aparkalekurako erabili beharko da**, izan ere, HAPOk aukera hori jasota du.


Proposamen horrekin sestra azpiko honako profila lortuko da: aparkaleku-erabilerako erdisotoko solairu bakarra, ezarritako aparkaleku-plazen eta trasteleku-azaleraren zati bat betetzeko, gainera, horiek etxebizitzekin komunikatuta egon beharko dute.

Sestra gainean

Hegalaren profila ahal den neurrian aldatu nahi ez bada, eta, horrekin batera, lurzoruaren hondeaketa mugatu nahi bada, erdisotoko solairuaren akabera-kota +51,30 i.m.g.m. izan dadin, sestra azpiko solairu eraikigarriak hirutik batera murriztuko dira. Horrela, erdisotoko solairu horren gainean, +54,30 m kotan, eraikinaren beheko solairua hasiko da. 2011ko HAPBk solairu horretan aparkalekua eta erabilera osagarria / merkataritza-erabilera esleitzen du: merkataritza eta aparkalekua. Hori dela-eta, **proposatutako erabilera-araubidea egokitzea proposatu da**,

hau da, beheko solairua aparkalekurako eta etxebizitzaren erabilera osagarriarako soilik erabiltzea. Aldaketa horrek proposamena berrantolatzeke aukera ematen du, arauak ezarritako aparkaleku-kopurua (1/etxebizitza) bete ahal izateko. Gainera, behe solairuak zailtasunak ditu EKTn espazio bizigarrietarako ezarritako irizpideak betetzeko, ingurune-baldintzak direla-eta. Horregatik, hori beste erabilera batzuetarako erabiltzea baztertu da.

Partzelaren topografikora itzulita eta ebaketetan antzematen den bezala, orubearen hego-mendebaldean lurzoru-kota oraindik 60 m inguruko altueratik gora dago. Horregatik, erabilera bizigarrietarako baldintzak desegokiak direnez, **planteatu da lehen solairua etxebizitzaren erabilera osagarrietarako bakarrik izatea.**



Lehen solairuaren eskema. Proposatutako zeharkako ebaketak, HAPBren aldaketa.
(APARKALEKUA + ERABILERA OSAGARRIAK ETXEBIZITZA)

Horrek guztiak esan nahi du partzelaren 591 m²-ko azalera hori ezin dela bete etxebizitza-erabilerarako eraikinaren bigarren solairura iritsi arte. Bestalde, **2., 3. eta 4. solairuak, eredu-solairuak, osorik etxebizitzetarako izango dira.**


HAPOn 2.308 m²ko eraikigarritasuna aurreikusita dago. Kontuan hartuta deskribatutako solairuetan ez dela eremu eraikigarri osoa okupatuko, eta azaleraren zati bat eremu komun publikoetarako eta pribatuetarako erabiliko dela, **estalkipeko solairua atikoetarako aprobetxatzea proposatzen da**, gainerako eraikigarritasuna osatzeko. Solairu hori eraikinaren hegalen lerrokaduratik 2,50 m atzeraematen da, kaletik ikusi ez dadin eta modu horretan, proposatutako eraikinak hiri-ingurunean duen eragina murrizteko.

Horrela, eraikuntza-profil berria definituko da: sestra azpiko solairua, behe solairua, lehen solairua, hiru solairu (eredu-solairuak) eta atikoa. Profil hori bat dator jasotako lerrokadura berriekin, gainera, eremu barruko erabilera bakoitzerako azalera totalak mantenduko dira.

Irtenbide horrek Plan Bereziaren aldaketak lortu nahi duen honako helburuak betetzen ditu: jasangarritasuna eta natura-ingurunearen gaineko eragina murriztea. Hori guztia, sektorean aurreikusitako eraikigarritasunean eta hirigintza-baldintza orokorretan eragin gabe.



2011ko HAPBren egungo antolamendua



HAPBren aldaketak proposatutako antolamendua


2.1.2.2. Ingurunea

Aurreko atalean deskribatu bezala, proposatutako erabilera-banaketa berriaren arabera, lehen bi solairu eraikiak (ES eta BS) aparkalekurako eta erabilera osagarrietarako dira. Lehen +56,00 m-ko kotan aurreikusita zegoen lehenengo etxebizitza-solairua, orain +57,25 m ($\pm 0,50$ m) kotan dago. Aldaketa horri esker, etxebizitza guztiek behar bezalako eguzkitzapena eta

aireztapena izango dutela bermatuko da; beste erara, altuera horretan mendi-hegala hurbilegi izango zuten.

Bestalde, beheko erreferentziatzat lurzoru urbanizatuarekin bat egiten duen fatxada-azaleraren erdiko puntua hartuta, 51,75 m, eta goiko erreferentziatzat, aldiz, estalki-forjatuaren goialdea, eraikuntzaren gehieneko altuera 72,75 i.m.g.m. kotan dago, solairu bakoitzeko batez beste 3 m-ko altuera kontuan izanda, 21 m gehituko direlako (ESS+BS+4S+A). Horrela, Plan Bereziaren aurreikusitako bizitegi-erabilerako 4 solairuak eraiki ahal izango dira, HAPOn ezarritako gutxienezko altuera librea (2,50 m) beteta. **Aldaketa horrek estalkipeko solairua terrazadun estalki laua izatea ahalbidetzen du.**

2011ko Plan Bereziak, estalkipeko tipologiarako, jadanik, teilatu-hegalaren altuera solairuko azken forjatuaren gainean jartzeko beharra aurreikusten zuen, partzelaren eraikigarritasuna mugatu ahal izateko. 2011ko Plan Bereziaren aldaketaren ondorioz teilatu-hegala +69,25 m-ko kotan ezarri da, beheko solairurako finkatutako kotari, 52,25 m-ri, 17 m (1BS+4S+1m) gehituta lortzen dena. Teilatu-hegalaren maila horrek proposamen berriaren atikoko forjatu-mailaren antzeko balioa du, +69,25 m ($\pm 0,50$ m). Gailurrari dagokionez, 2011ko Plan Bereziaren aldaketaren arabera, +71,95 m-ko kotan ezartzen da, proposatutako baliotik nahiko hurbil +72,25 ($\pm 0,50$ m), betiere eraikuntzaren gehieneko altuerari dagozkion +72,75 m-tik behera. Hala ere, balioa pixka bat handiagoa denez, beharrezkotzat jo da atikoa 2,50 m atzeraematea, era horretan proposamenaren ikus-eragina Plan Bereziak kontuan hartzen duen tipologiaren oso antzekoa izango da.



Eraikinaren altueraren alderaketa-ebaketak

2.1.2.3. Behe Solairuaren Geometria-definizioa

Partzelaren antolamendua ezartzerakoan kontuan hartu beharreko beste alderdi garrantzitsua lurzoruaren luzetarako ebaketaren desnibela da. Santa Klara kalea goranzko maldadun bidea da; beraz, partzelak kalerantz dituen 56 m-ko fatxadan zehar, espaloia koto 50,5 m-tik 53,30 m-ra igarotzen da. Etorkizuneko proposamenak higiezinaren sarbiderako irtenbidea topatu beharko du, bai erdisototik, bai beheko solairutik, biak aparkalekurako eta etxebizitzaren erabilera osagarrietarako direnak.

Aparkatzeko solairuetan ibilgailuentzako sarbideari dagokionez, **Santa Klara kaletik kanpoko bi sarbide independente sortzea proposatzen da**. Hala, kale nagusiaren desnibela aprobetxatuko da solairu bakoitzerako sarbide independentea sortzeko eta horien arteko ibilgailu-komunikazioa kentzeko; izan ere, azterketa geoteknikoaren arabera, hondeaketa-azalera erabilgarria mugatua da. Horrela, barneko azalera eraikia optimizatuko da, aparkaleku-plaza gehiago lortzeko. Sarbide bakoitza bidearen mutur batetik egingo da, bata bestearengandik ahalik eta gehien aldentuta. Partzelaren kasu zehatzean, ibilgailuentzako sarbide bat baino gehiago izateak ez du eragin txarrik izango oinezkoen zirkulazioan, lurzoru urbanizaezinarekin mugatzen duen partzela delako. Espaloia ez da hiriguneko gainerakoekin lotzen eta bere trazadura partzelaren iparraldeko muturrean bukatzen da. Horrela, oinezkoen zirkulaziorik handiena bidearen beste aldeko espaloitik izango da.

2.2. Zentzuzko aukerak

Proposatutako aldaketak ez du berez Elgoibarko Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren egituran eta antolamendu orokorrean funtsezko eraginik. Aldaketa horren irismen laburra dela eta, bi aukera baino ez dira aztertu eta ebaluatu: "Huts aukera" edo esku-hartzerik gabekoa eta "1. aukera", proposamena.

2.2.1. : "Huts aukera" edo esku-hartzerik gabekoa

"Huts aukera" 7.A.2-Santa Klara 19 azpierzemuko partzela garatzeko berezitasunei eustea da, eraikuntza-parametroen laburpen-fitxa honetan ageri direnak:

A) ERAIKUNTZAREN BALDINTZAK

	HAPB 2011
--	------------------

HIRIGINTZA- ERAIKIGARRITASUNA	1. PARTZELAREN AZALERA		591 m ²
	SESTRA GAINEKO ERAIKIGARRITASUNA	BIZITEGIA	2.308 m ²
		MISTOA	591 m ²
		APARKALEKUA ETA OSAGARRIAK	0 m ²
	SESTRA AZPIKO ERAIKIGARRITASUNA		Ez da zenbatzen
	SESTRA GAINEKO GEHIENENKO SOLAIRU-KOPURUA		BS+4S+EA
	SESTRA AZPIKO GEHIENENKO SOLAIRU-KOPURUA		(3)
ETXEBIZITZAK		26	
FORMA- PARAMETROAK	ERAIKUNTZAREN GEHIENENKO ALTUERA		+68,95 i.m.g.m.
	ERAIKUNTZAREN SESTRA		+52,25 i.m.g.m.
	BIDEAREKIKO GUTXIENENKO TARTEA (Santa Klara Kalea)		3,00 m

B) ERABILERAREN BALDINTZA OROKORRAK

		HAPB 2011
SESTRA GAINEAN	ATIKO SOLAIRUA	-
	ESTALKIPEKO SOLAIRUA	OSAGARRIA
	EREDU-SOLAIRUA	BIZITEGIA
	LEHENGO SOLAIRUA	-
	BEHE SOLAIRUA	MISTOA
SESTRA AZPIAN	ERDISOTO SOLAIRUA	-
	SOTO SOLAIRUA	APARKALEKUA

2.2.2. "1. aukera"

Ondoren, 2.1 puntuaren laburpen txikia jaso da, proposatutako aldaketaren irismena garatzen duena, "Huts" aukera eta "proposatutako" 1. aukera konparatzeko.

2.2.2.1. 7.A.2 – Santa Klara 19 Azpierzemua

- 1. partzela: 591,00 m². Erabilera: Hiri Bizitegia
- 2. partzela: 194,10 m². Erabilera: Bidea
- 3.1. partzela: 134,92 m². Erabilera: Berdegunea
- 3.2. partzela: 173,10 m². Erabilera: Berdegunea

2.2.2.2. 1. partzela

Gehieneko bolumen eraikigarria

Sestra azpian

- Lurzoruaren hondeaketa-sakonera mugatuko da.
- Ordenantzan aipatzen diren 3 soto-solairuak egiteko aukera desagertu da, eta sestrapeko eraikuntza-profila erdisotoko solairu bakarrera mugatuko da.
- Eraikuntza partzelaren hego-ekialdeko gunean kontzentratzea planteatu da, maldarik kontrolatuena duen eremua baita eta lurzoruak eremuko gainerako lekuetan baino konposizio sendoagoa du
- Ezinezkoa denez eraikinaren erdisotoko solairuan arauan ezarritako aparkaleku-plaza guztiak egitea, hori betetzeko eraikinaren beheko solairua ere aparkalekurako erabili beharko da

Sestra gainean

- Proposatutako erabilera-araubidea egokituko da eta beheko solairua aparkalekurako eta etxebizitzaren erabilera osagarriarako soilik erabiliko da.
- Planteatu da lehen solairua etxebizitzaren erabilera osagarrietarako bakarrik izatea.
- 2., 3. eta 4. solairuak, eredu-solairuak, osorik etxebizitzetarako izango dira.

Ingurunea

- Eraikuntzaren gehieneko altueraren kota 72,75 m-ra pasatuko da. Aldaketa horrek estalkipeko solairua terrazadun estalki laua izatea ahalbidetzen du

Behe Solairuaren Geometria-definizioa

- Santa Klara kaletik kanpoko bi sarbide independente sortzea proposatu da.

Ondoren, egungo Hiri Antolamenduko Plan Berezia eta bere aldaketa honen proposamenean finkatutako eraikuntza-parametroen alderaketa-laburpena jaso da. Aldatu beharreko zehaztapenak urdinez adierazi dira.

A) ERAIKUNTZAREN BALDINTZAK

		HAPB 2011	HAPB ALDAKETA	
HIRIGINTZA-ERAIKIGARRITASUNA	1. PARTZELAREN AZALERA	591 m ²	591 m ²	
	SESTRA GAINEKO ERAIKIGARRITASUNA	BIZITEGIA	2.308 m ²	2.308 m ²
		MERKATARITZA	591 m ²	0 m ²
		APARKALEKUA ETA OSAGARRIAK	0 m ²	3.546 m ²
	SESTRA AZPIKO ERAIKIGARRITASUNA	Ez da zenbatzen	Ez da zenbatzen	
	SESTRA GAINEKO GEHIENEO SOLAIRU KOP.	BS+4S+EA	BS+4S+A(I)	
	SESTRA AZPIKO GEHIENEO SOLAIRU KOP.	(3)	1	
ETXEBIZITZAK	26	26		
FORMA- PARAMETROAK	ERAIKUNTZAREN GEHIENEO ALTUERA <small>(GAILURRAREN ALTUERA)</small>	+69,25 i.m.g.m. <small>(+71,95 i.m.g.m.)</small>	+72,75 i.m.g.m. <small>(+72,75 i.m.g.m.)</small>	
	ERAIKUNTZAREN SESTRA	+52,25 i.m.g.m.	+ 51,25 (±0,50) i.m.g.m.	
	BIDEAREKIKO GUTXIENEO TARTEA <small>(Santa Klara Kalea)</small>	3,00 m	3,00 m	

B) ERABILERAREN BALDINTZA OROKORRAK

		HAPB 2011	HAPB ALDAKETA
SESTRA GAINEAN	ATIKO SOLAIRUA	-	BIZITEGIA
	ESTALKIPEKO SOLAIRUA	OSAGARRIA	-
	EREDU-SOLAIRUA	BIZITEGIA	BIZITEGIA
	LEHENGO SOLAIRUA	-	BIZITEGIA ETA OSAGARRIAK
	BEHE SOLAIRUA	MERKATARITZA	APARKALEKUA ETA OSAGARRIAK
SESTRA AZPIAN	ERDISOTO SOLAIRUA	-	APARKALEKUA ETA OSAGARRIAK
	SOTO SOLAIRUA	APARKALEKUA	-

3. Plan Bereziaren aldaketaren garapenaren aurreikuspena

Elgoibarko Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren Aldaketa Puntuala izapidetzeko, ingurumen-ebaluazioaren ikuspuntutik, **“Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen”** 29. artikulutik 32. artikulura bitartean deskribatutako prozedura jarraituko da. Lege horretan planen eta programen Ingurumen-ebaluazio Estrategiko Sinplifikatua arautzen da. Izan ere, Lege horren 6. artikulua 2. paragrafoaren arabera, plangintza-tresna baten **aldaketa txikia** da.

Beraz, 7.A.2 Azpierzemuko Plan Bereziaren aldaketaren sustatzaileek organo substantiboari helaraziko diote dokumentazioa, kasu honetan Elgoibarko Udalari, proposamena behin betiko onartuko duen administrazioa baita. Horrek dokumentazioa ingurumen-organuari bidaliko dio, hau da, kasu honetan Gipuzkoako Foru Aldundiari eta hark izapidetzea ez onartzea erabaki dezake edo eragindako administrazio publikoei kontsulta egingo die, ezarritako prozeduraren arabera, izapidetzea jarraitzeko.

Azkenik, ingurumen-organok Ingurumen-txosten Estrategikoa ebatziko du eta honako hau zehaztu ahal izango du:

- a) Planak edo programak ingurumen-ebaluazio estrategikoa arrunta egin behar du, ingurumenean ondorio garrantzitsuak izan ditzakeelako.
- b) Planak edo programak ez du eragin nabarmenik ingurumenean, ingurumen-txosten estrategikoan ezarritakoaren arabera.

Aldaketa onartu ondoren, onespén horretatik hamabost (15) eguneko epean, organo substantiboak honako dokumentazio hau bidaliko du Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin:

- a) Aldaketa horren onarpen-ebazpena eta organo substantiboak plan edo programa horren eduki osoa jendaurrean eskuragarri izateko helbide elektronikoaren erreferentzia.
- b) Ingurumen-txosten estrategikoa argitaratu duen «Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala»-ren aipamena.

Dokumentu honen ingurumen-izapidetzea amaitu ondoren, aurreikusitako jarduketan eraikuntza-proiektua egingo da, Elgoibarko Udalaren obra-lizentzia izango duena.

4. Egungo ingurumenaren egoeraren karakterizazioa

4.1. Informazio-iturriak eta aurkitutako zailtasunak

Ondoren, laburbilduta aipatu dira eremuko ingurumena deskribatzeko eta karakterizatzeko erabili diren informazio-iturri nagusiak.

- *Eusko Jaurlaritza. Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/ingurumena/>*
- *Nazioarteko Estatistika Institutua. <https://www.ine.es/>*
- *Nekazaritza eta Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa. <http://www.magrama.gob.es>*
- *Uraren Euskal Agentzia. <http://www.uragentzia.euskadi.eus>*
- *Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa. Espainiako Geologia eta Meatzaritza Institutua. <http://info.igme.es/cartografia/magna50.asp>*
- *Euskadiko Datu Espazialen Azpiegitura. <http://www.geo.euskadi.eus>*

Dokumentu hau egiteko informazioa bilatzeko eta lortzeko, ez da zailtasunik aurkitu.

4.2. Eragindako lurralde-eremuaren ingurumen-deskribapena

Atal honetan, egin nahi den aldaketaren kokaleku inguruko ingurumen-faktoreak deskribatuko dira.

4.2.1. Ingurune fisikoa

4.2.1.1. Klimatologia

Itsasotik hurbil dagoenez, aztergai den eremuak honako ezaugarriak ditu: klima epel ozeanikoa, tenperatura leunak, anplitude termiko eskasa, hezetasun erlatibo handia, hodei ugari eta urte osoan zehar era erregularrean banatutako euri ugari. Udazken-negua garairik euritsuena da. Tenperaturak ez du gorabehera handirik, eta urteko batezbestekoa 14 °C ingurukoa da.

4.2.1.2. Geologia y litologia

Gaur egun Elgoibarreko luzoruak arroka sedimentarioez osatuta daude, hau da, milioika urtetan itsas arroaren hondoa metatutako sedimentuetatik sortutako arrokez.

Kretazeo garaian, eremu osoa itsaso epelak estaltzen zuen eta bertan metatzen ziren, batez ere, gertuko Mendikate Hesperikoaren higadurak erauzitako materialak.


Zehazki, aztergai den partzelarako azterketa geoteknikoa egin da, honako datu hauek eman dituen:


Partzelaren hego-mendebaldean malda handiko eremua dago, oso gainazalekoa den harri-geruzaz osatuta dago eta bere egonkortasunerako kaltegarria den puntzonaketa-norabidea du.

Ipar-ekialdean, lurzoruaren lehen geruzak buztinez eta betelanez osatuta daude eta gainazalean hainbat arroka hautsi daudela aztertu da, batez ere eremuaren hegoaldean eta mendebaldean.

Estratigrafiaren informazio horretatik hainbat ondorio atera dira:

- Egin beharreko indusketa-eremua murriztu behar da, mendi-mazelaren ezegonkortasun handia dela-eta. Beraz, ez da komeni indusketa sakona egitea, lurzoruaren heterogeneotasunaren ondorioz, zimendu-estrategia bakarra egitea ezinezkoa delako.
- Indusketa partzelaren hego-ekialdean kontzentratzea komeni da, malda kontrolatuagoa duelako eta lurzoruak gainerako orubean baino konposizio hobea duelako.





Lurzoruaen estratigrafia, txosten geoteknikoan jasotakoaren arabera


4.2.1.3. Orografia

Elgoibar Debako haranean dago, 800 - 900 m inguruko altitudetako mendiez inguratuta. Haranaren ekialdeko isurialdean, mendi-mazelak aldapa handia dute eta Karakate-Irukurtzeta mendilerroa da nagusi; mendebaldean, berriz, Arrate eta Kalamua mendietatik hedatzen da Bizkaira.

Gailur aipagarri batzuk hauek dira: Irukurtzeta (895 i.m.g.m.), Atxolin (864 i.m.g.m.), Kalamua (767 m), Karakate (742 m) eta Morkaiko (520 m).

Aztergai den partzelako orografiari dagokionez, partzelaren malda handia azpimarratu behar da, izan ere, bere alderik baxuenean (ipar-ekialdean) 51 i.m.g.m. kotan dago eta bere alderik altuenean (hego-mendebaldean), aldiz, 60 i.m.g.m. kotan, hau da, 9 m-ko desnibela dauka.

Ondoren, 7.A.2 azpieremuko Plan Bereziaren aldaketaren xede diren partzeletako maldak erakusten dituen grafikoa erantsi da.



Partzelaren maldak. Iturria: GeoEuskadi Bisorea

4.2.1.4. Hidrologia e hidrogeologia

Elgoibar Deba ibaiaren arroan dago eta izen bereko Unitate Hidrologikoari dagokio. Uraren Esparru Zuzentaraua (UED) ezartzeari buruzko txostenen arabera, Debako Unitate Hidrologikoa, osorik EAEn garatzen dena, Euskal Autonomia Erkidegoko barne-arroen barrutikoa da (erkidego barruko arroak), eta Uraren Euskal Agentzia da haren erakunde eskuduna.

Deba ibaiaren arroa, 533,8 km² -koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko mendebaldekoa da. Deba ibaia Leintz-Gatzagako erreketan sortzen da. Arrasatetik behera, Aizkorri mendilerroan sortzen den Oñati ibaiaren ekarpenak jasotzen ditu. Ur-bateratze horretatik aurrera iparraldetik hegoaldera doa Kantauri itsasoan itsasoratu arte, Ego bere behealdeko ibaiadar nagusia igaro ondoren.

Jarraian azterlanaren eremutik hurbil dauden ibai-ibilguz buruzko xehetasun grafikoa jaso da:



Aztergai den eremuaren inguruko azaleko hidrologia. Iturria: Geoeuskadi

Nabarmentzekoa da Aizti ibaiaren gertutasuna, Deba ibaiaren ibaiadarra inguru horretan, hala ere, ibai hori lur azpitik igarotzen da afekzio-eremutik eta zuzenean Deba ibaian amaitzen da 100 metro beherago.

4.2.1.5. Kalitate atmosferikoa


Airearen kalitatea zaintzeko sareak 8 unitatetan banatzen du EAEko lurraldea. Elgoibar 'Kostaldea' unitatean sartu da eta 992,2 km² eta 199.009 biztanle ditu, bertatik hurbilen dauden kontrol-estazioak Pagoeta, Azpeitia eta Zumarraga dira, hurrenez hurren, 20, 12 eta 14 km-ra, gutxi gorabehera. Hala, Pagoeta bakarrik dago Kostaldea inguruan. EAEko airearen kalitateari buruzko 2015eko urteko txostenaren arabera, estazio horietan neurtutako SO₂, NO₂, PM₁₀, PM_{2,5}, CO balioak araudiak ezarritako mugen azpitik daude. O₃ren helburu-balioa ere betetzen da.

Atal honetan, **atmosfera-kutsatzaileen emisio-iturri** nagusiak aztertzen dira, batez ere, ibilgailuen joan-etorria eta etxeko sektore ekonomikoa direnak.

Horretarako, EAEko airearen kalitateari buruzko urteko txostenetan jasotako datuak hartu dira, Azpeitiko hirigunetik hurbilen dagoen estazioa erreferentziatzat hartuta, izan ere, udalerrri honek ez baitu airearen kalitatearen aldizkako azterketarik.


Jarraian, NO₂ eta CO kutsatzaileen urteko batez bestekoak batzen dituzten bi grafiko jaso dira, 2013tik 2017ra bitartean, aurretik aipatutako emisio-iturriari lotutako kutsatzaile garrantzitsuenak baitira.

Horietatik lehenengoa, NO₂-ren urteko batez bestekoari dagokiona da, kutsatzaile hori neurtzeko gaitasuna duen estazio hurbilenekoaren datua, hau da, Azpeitiakoa. Balio horiek Elgoibarrera estrapola daitezke, Azpeitiaren antzeko ezaugarriak baititu, bi hiriguneak bata bestetik hurbil daudelako eta antzeko ezaugarriak dituztelako.



NO₂ kutsatzailea neurtzeko estazioetako urteko batezbestekoaren grafikoa

Antzeman da 2013tik lortutako NO₂ kontzentrazioen urteko batez besteko balioak ez duela 40 µg/m³-ko muga-balioa gainditu.



Egunean zortzi orduko batez besteko gehieneko aldeketen COren grafikoa, kutsatzaileak neurtzeko estazioetan

Bigarren grafikoak egunean zortzi orduko batez besteko gehieneko aldaketen emaitzak erakusten ditu, neurtutako estaziorik hurbilenean, kasu honetan Arrasateko hiriguneko bi estazioetan. Aurreko grafikoan bezala, balio horiek estrapolatu egin dira. Elgoibarrek eta Arrasatek antzeko ezaugarri morfologikorik ez izan arren, aztertu da Arrasaten CO-ren balioak muga-balioetatik urrun daudela, beraz, Elgoibarren askoz ere txikiagoak izango dira.

Kalitate akustikoari dagokionez, Elgoibarko Udalak 2014. urtean zarata-mapa egin zuen, ibilgailu- eta trenbide-azpiegiturenak ere kalkulatu, inguruko zaratagune guztien artean ebaluazio osoa eta bateragarria lortzeko.

Urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoaren, 3.d) artikuluan jasotako definizioaren arabera, eremua etorkizuneko garapena da: hirigintzako edozein jarduera, baldin eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak, ekainaren 30ekoak, bere 207. artikuluko b) idatz-zatian aurreikusitako lizentzia beharko duen lan edo eraikuntzaren bat egitea aurreikusten bada.

Aipatutako Dekretuaren 30.2 artikularen arabera, etorkizuneko garapena sustatuko duten erakundeek 37. artikuluan aipatutako eragin akustikoari buruzko ikerketa egin beharko dute. Eragin akustikoari buruzko ikerketa horrek justifikatu beharko du kalitate akustikoaren helburuak betetzen direla kanpo-espazioan, eta ezarri beharreko neurri zuzentzaileak edo osagarriak ere jasoko dira, horiek beharrez gero.

Partzela a) bizitegi-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo –sektoreak motako eremu akustikoan dago. Beraz, eraikuntza berriko eraikinetarako KAHak “A taula. Dauden eremu urbanizatueterako zarataren kalitate akustikoko helburu aplikagarriak” 65-65-55 db(A)-tan finkatuta daude, egun-arratsalde-gau epealdietarako, hurrenez hurren.


Elgoibarrek 2016an onartutako zarata-mapa estrategikoak ditu. Plan Berezi honen xede den partzelak 55 dB(A) baino ingurune-zarata txikiagoa du epealdi osoan: egunean, arratsaldean eta gauean.

KALITATE AKUSTIKOKO HELBURUAK


A taula. Dauden eremu urbanizatueterako zarataren kalitate akustikoko helburu aplikagarriak.

Eremu akustiko mota		Zarataren adierazleak		
		L _d	L _e	L _n
E	Osasun-, hezkuntza- eta kultura-erabilerako lurzoruak nagusi diren eta hots-kutsaduraren aurkako babes berezia behar lurralde-esparru edo -sektoreetarako zehaztutakoekin.	60	60	50
A	Bizitegi-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak.	65	65	55
D	c) paragrafoan jasotakoa ez bestelako hirugarren sektoreko erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo sektoreak.	70	70	65
C	Jolaserako eta ikuskizunetarako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak.	73	73	63
B	Industria-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak.	75	75	65
F	Garraio-azpiegiturako sistema orokorrek edo horiek behar dituzten ekipamendu publikoek eragindako lurralde-esparru edo -sektoreak.	(1)	(1)	(1)


Horrek esan nahi du partzelak kalitate akustikoaren helburuak betetzen dituela kanpoko espazioan, neurri zuzentzaile gehigarririk behar izan gabe, lurzoru urbanizatua edo etorkizuneko garapena izanda.



Elgoibarko zarata-mapa: Eguneko epealdia (Ld)



Elgoibarko zarata-mapa. Arratsaldeko epealdia (Lt)




Elgoibarko zarata-mapa. Gaeko epealdia (Ln)

4.2.1.6. Arrisku naturalak eta teknologikoak

Atal honetan, aztergai den eremuan eta horren inguruan identifikatutako arrisku naturalak eta teknologikoak aztertu dira, horien ondorio posibleak baloratzeko.

U HOLDE-ARRISKUA:

Uholde-arriskuari dagokionez, 10, 100 eta 500 urteko itzulketa-epaaldiko uholde-arriskuak hartu dira, URAREN (Uraren Euskal Agentziaren) web orrian eskuragarri daudenak. Deba ibaiko ibilguaren ertzetik hurbilen dauden eremuko lurzoruak, 10 urteko itzulketa-epaaldiko uholde-arriskua dute, horregatik, erabilera eta jabari publikoko lurzoru libre geratuko dira, berdegune kalifikatuta.



Elgoibartik igarotzean Deba ibaiaren uholde-arriskua 10 urteko itzulketa-epealdian (laranja), 100 urtekoan (horia) eta 500 urtekoan (urdina)

GEOLOGIA-ARRISKUAK:

4.2.1.2. puntuan adierazi den bezala, litologia-azterketari dagokionez, partzelaren hego-mendebaldean malda handiko eremua dago, hori oso gainazalekoa den harri-geruzaz osatuta dago eta bere egonkortasunerako kaltegarria den puntzonaketa-norabidea du.


Ipar-ekialdean, lurzoruaren lehen geruzak buztinez eta betelanez osatuta daude eta gainazalean hainbat arroka hautsi daudela aztertu da, batez ere eremuaren hegoaldean eta mendebaldean.

Estratigrafiaren informazio horretatik hainbat ondorio atera dira:

- Egin beharreko indusketa-eremua murriztu behar da, mendi-mazelaren ezegonkortasun handia dela-eta. Beraz, ez da komeni indusketa sakona egitea, lurzoruaren heterogeneotasunaren ondorioz, zimendu-estrategia bakarra egitea ezinezkoa delako.
- Indusketa partzelaren hego-ekialdean kontzentratzea komeni da, malda kontrolatuagoa duelako eta lurzoruak gainerako orubean baino konposizio hobea duelako.

ARRISKU SISMIKOA:

Elgoibarko arrisku sismikoak V. mailako intentsitatea du, Arrisku Sismikorako Larrialdi Planaren arabera. Nahiz eta arrisku sismikoa txikia izan, kontuan hartu beharko dira 2002ko irailaren 27ko 997/2002 Errege Dekretuan jasotako Eraikuntza Sismorresistentearen Arauko jarraibideak.




EAEko arrisku sismikoa. Iturria: Eusko Jaurlaritza

LURZORUAREN KUTSAKETA:

Plan Berezi honen xede den 7.A.2 – Santa Klara 19 eremua ez dago lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan.


Hortaz, ez da aplikatuko ekainaren 25eko 4/2015 Legea, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa.



Kutsagarriak izan daitezkeen lurzorua 165/2008 Dekretuan jasotakoa

SUTE-ARRISKUA:

Aztergai den eremuak ez du baso-sute arriskurik, hirigunea baita. Jarraian, geoeskadi bisoretik lortutako baso-sute arriskuko eremuen xehetasun-grafikoa jaso da (www.geo.euskad.eus): berde kolorekoak arrisku txikikoak dira, arrisku ertainekoak horiak eta baso-sute arrisku handikoak, aldiz, gorriak.



Aztergai den eremuan baso-sute arriskuak

Hala ere, eremu basotzuak hurbil daudenez, hori kontuan hartu beharko da aldaketa honen ondoriozko eraikuntza-lanetan.

4.2.1.7. Trafikoa eta mugikortasuna

ERREPIDE-SAREA

Elgoibarren hainbat bide-azpiegitura daude, horietatik igarotzen da ibilgailuen garraioa; besteak beste, N-634 eta AP-8. Gainera, ingurunea Elgoibarko hiri-bideen sareari lotuta dago.

AP-8ari dagokionez, autobide hori Bilbo-Donostia ardatzetik igarotzen da; N-634, berriz, ardatz berean garatzen den beste bide bat da, baina gaur egun zati gehienetan hiriguneetatik igarotzen da, eta inguruko herrien arteko mugikortasunerako erabiltzen da.

IBILGAILUEN ZIRKULAZIOA AP 8 ETA N-634 ERREPIDEETAN

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia eta Lurralde Garapeneko Sailak informazioa eskaini du Elgoibar inguruko trafikoa aztertzeko.



Elgoibarko errepide-sarea

Elgoibar inguruan jasotako edukierari dagokionez, zehazki AP8n, neurtutako edukierak 23.385 EBI (Eguneko batez besteko intentsitatea) du eta ibilgailu astunen EBI 4.209 da.

N-634 errepideko zirkulazioari dagokionez, 10.450ko EBI dauka horietatik ibilgailu astunen EBI 627 da.

KALE-SAREA

Jarduketa eremuan ondorengo bideak daude, hura mugatzen dutenak: Santa Klara kalea eta auzoa zeharkatzen duen bide nagusia. Kale horietan ibilgailuen zirkulazioa arina da, eta, oro har, 30 km/h-ko abiadura txikia daramate, inguruaren tipologia dela-eta (bizitegi-zirkulazioa, oinezkoentzako pasabide eta sakangune ugari, errail eta noranzko bakarreko kaleak).

4.2.2. Ingurune biotikoa

4.2.2.1. Landaredia

Kapitulu hau egiteko, EAEko Habitaten Mapa (2009) erabili da erreferentzia-oinarri, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailburuordetzak egina. Halaber, honakoak ere kontsultatu dira: arriskuan dauden Fauna eta Landarediaren Euskadiko Zerrenda, EAEko zuhaitz berezien zerrenda eta EAEko ortofotoa (2015).

Informazio hori landa-lan egokiekin osatu eta egiaztatu da, eta aipatu den kartografian mugatutako landaredi-unitateak aldatu dira.

Azterketa-eremuko landaredi potentzialak giza esku-hartzerik gabe eremuak izango lukeen landaredi klimazikoak osatzen du. Deba ibaiaren erriberan eta lautada alubialean, landaredi potentziala haltzadi kantaauriarra da eta haranaren hondoan, berriz, *Quercus robur* harizti azidofiloa eta baso misto atlantikoa dira.

Hala ere, gaur egun aztergai den eremuko landare-estalkia ez dator bat eremu horretako landaredi potentzialarekin. Proiektuak eragindako eremuan landaredi-unitate hauek bereizten dira:

- Baso misto atlantikoa. Partzelaren hegoaldean, baso misto hostogalkorraren eremu txikia dago, zumarrez (*Ulmus glabra*), astigarrez (*Acer campestre*, *A. pseudoplatanus*), lizarrez, ezkiz eta gereziz osatua.
- Landare erruderala. Antropizatuagoak dauden eremu txiki batzuetan, landaretza erruderala da nagusi, hau da, lehen estadioak estaltzen dituen landaretza aitzindaria eta oportunistak. Nabarmentzekoak dira masustak eta iratzeren bat.
- Landaredi apaingarriak. Partzelan koniferoren bat dagoela identifikatu da. Hori bere kokapenagatik eta landatzeko moduagatik apaingarriztat jotzen den espeziea da.

Partzelaren gainerakoa belardia da. Bertan, era honetako eremu antropizatuagoetan ohikoak diren belar-espezieak daude. Hala, *Trifolium repens*, *Plantago major* eta *Lamium maculatum* bezalakoak aurki ditzakegu, lurzoru hezeen eta emankorren ezaugarria dena, nahiz eta beste hainbat habitatetan ere hazteko gai izan. Eremu honetako beste espeziea *Verbascum virgatum* edo *Rumex acetosa* da, kolore gorrixka eta sustrai iraunkorrak dituena. Sustrai horiek sakon hazten dira lurzoru hezeetan zein belardietan ere. Bestalde, eremu antropizatuagoetako edo degradatuagoetako espezieak ere badaude, hala nola, *Urtica membranacea* edo, neurri txikiagoan, *Oxalis corniculata*, *Chelidonium majus* edo *Arum maculatum*, toki itzaltsuetan eta freskoetan ohikoak direnak, esaterako, tapietan edo horma zaharretan.

Horien guztien kokalekua azterketa-eremuko "Ingurumen-baldintzak" planoan adierazita daude. Planoa dokumentu honi erantsita dago.

4.2.2.2. Fauna

Aztertutako eremuaren inguruetan ibili daitekeen fauna, oso antropizatutako hiri-eremua dela kontuan hartuta, orokorra eta ubikista da. Oso ugaria ez izan arren, bertan badira harraparietatik babesten diren espezieak, gainera, babesteaz gain, elikagaiak erraz eskuratzeko modua dute. Inguru horretako hegaztiei dagokienez, etxe-txolarrea (*Passer domesticus*) nabarmendu behar da, jendea bizi den eremuetako txolarrea, hala nola, parkeetan, baratzeetan edo etxaldeetan. Hori lurrean elikatzen da, baina inguruko zuhaitz txikietan babesten da. Horrez gain, beste espezie batzuk ere badadude, esaterako: zozo arrunta (*Turdus merula*), gune epeletan ohikoak; mika arrunta (*Pica pica*); kaskabeltza (*Parus major*) edo amilotx arrunta (*Cyanistes caeruleus*), arrastele-, parke- edo lorategi-eremuetan ohikoa dena.

Gainera, ugaztun txikien espezieak ere ager daitezke, neurri handiagoan edo txikiagoan, hala nola: sator itsua (*Talpa caeca*), lursagu lusitaniar (*Pitymys savii*), uzta-sagua (*Micromys minutus*) edo lursagu garratza (*Microtus agrestis*), belardi-eremuetan ohikoak.

Mustela lutreola (bisoi europarra) espeziea antzeman da, hori Espezie Mehatxatuen Euskadiko Katalogoko "Galzoriko espezien" kategorian jasota dago.

Aleek ibaien inguruan mugatuta daude, bai ur-lamina, baita ezponda eta ibaiertzeko lehen metroak ere; kasu honetan, San Lorenzo ibaiaren inguruan daude; ibai hori azterketa-eremutik 200 m-ra dago, gutxi gorabehera.

4.2.2.3. Paisaia

Eremua “Orrosun” ikuseremuaren parte da. Ikuseremu hori 1.538,30 ha-koa eta ia osorik (% 99,4) Elgoibarren dago.

Baso-erabilera eta hiri-osagai handiko arroa da, gainera, komunikazio-bideen (N-634 errepidearen eta A-8 autobidearen) eta Deba ibaiaren ondoko industria-kokalekuen paisaia-eragin handiak ditu. Ondorioz, Orrosungo ikuseremua paisaia-kalitatearen ikuspuntutik baxu baloratu zen (1 balioa, paisaia-balio oso txikia); beraz, ez zen EAEko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoan sartu. Azterketa-eremuak balio baxu horretan parte hartzen du, industria-erabilerak eraldatutako eremuan dagoelako.

Aztergai den partzela hiri-eremuan dago, oso ikuspen gutxi dauka eta garaiera txikiko bizitegi-eraikinen artean dago. Partzela horrek kale edo eraikuntza-elementu hauekin egiten du muga:

- Iparraldean, partzelak Santa Klara kalearekin egiten du muga.
- Ekialdetik, berriz, zati batean Santa Klara kalearekin eta alboko bizitegi-partzelarekin;
- Hegoaldean, landaredi basotsuko zenbait landa-partzelekin mugatuta dago;
- Mendebaldetik, landaredi basotsuko zenbait landa-partzelekin egiten du muga.

Nabarmentzekoa da partzelaren ikuspena nahiko murrizta dela, aurretik esan bezala, eraikinen artean dagoenez, horietatik oso hurbil egon arte ez da ikusten. Partzelaren behaketa-punturen bat egonez gero, ez zuzenekoa, baina bai eraikin mugakideena behintzat, Aizkorri kalean dago.

Jarraian, partzelaren inguruko hiru behaketa-puntutatik hartutako argazkiak jaso dira. Puntu horien kokapen zehatza dokumentu honi erantsitako ingurumen-baldintzen planoan ageri da.

1. Behaketa-puntua:

Behaketa-puntu hau Santa Klara kalean bertan dago, aztergai den partzelaren ekialdean, zehazki. Hona hemen argazkia.



1. Behaketa-puntua

Kale honetatik ez dabil jende askorik, nahiz eta industria-garapeneko eremu txikiarekin lotzen den eta Elgoibarren inguruko baserri-eremu zabalari zerbitzu ematen dion. Ez da Elgoibarko sarrera nagusietakoa, baina bigarren mailakoa da.

2. Behaketa-puntua:

Bigarren behaketa-puntua ere Santa Klara kalean jarri da, aztergai den partzelaren ipar-mendebaldean. Hona hemen argazkia.



2. Behaketa-puntua

Esan bezala, kale honetatik ez dabil jende askorik, nahiz eta industria-garapeneko eremu txikiarekin lotzen den eta Elgoibarren inguruko baserri-eremu zabalari zerbitzu ematen dion. Ez da Elgoibarko sarrera nagusietakoa, baina bigarren mailakoa da.

3. Behaketa-puntua:

Proposatutako hirugarren behaketa-puntua Aizkorri kalean dago, partzelaren ipar-ekialdean, zehazki ibarbidearen beste aldean. Ondoren, puntu horretatik ateratako argazkia dago.



3. Behaketa-puntua

Kale horretan ez da jende asko ibiltzen eta, funtsean, inguruko bizilagunek erabiltzen dute.

4.2.2.4. Naturagune babestuak


Azterketa-eremua eta horren ingurua ez daude Naturagune Babestu identifikatutako figuraren baten barruan jasota: Batasunaren Intereseko Lekuak (BIL) edo Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak (HBBE). Ezta katalogatutako zuhaitzen inguruan ere, Euskadiko Zuhaitz Berezien Inbentarioaren arabera. Era berean, ez dago, ez eremuan, ez inguruan, Habitat Zuzentarauaren barneko espaziorik.

4.2.3. Giza ingurunea

4.2.3.1. Sozioekonomia

BIZTANLERIA:

EINEk 2020ko urtarrilaren 1ean argitaratutako datuen arabera, Elgoibarren 11.570 biztanle zeuden. Hurrengo grafikoan udalerriko biztanleriak urteetan izan duen bilakaera antzematen da.



Biztanle-kopuruaren bilakaera. (Iturria: EIN).

Elgoibar honako auzo hauetan banatuta dago: Alzola, Arriaga, Sallobente-Ermuaran, Idotorbe, Aiastia, Azkue, Urruzuno.

EKONOMIA:

Estatistikako Institutu Nazionalaren arabera, emaitza nagusiak hauek izan ziren: 2018an etxeetako, batez beste, per capita errenta erabilgarririk handiena EAEn izan zen, hau da, 20.243 euro (Espainian baino % 29,6 baino gehiago).

GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIATUAK (2021eko iraila)

Septiembre 2021	Total Afiliados	Variacion			
		Mensual		Anual	
		Absoluta	Relativa	Absoluta	Relativa
Total	4792	+78	1.65 %	+23	0.48 %
REGIMEN:					
GENERAL	3847	+73	1.93 %	+22	0.58 %
AUTONOMOS	798	-3	-0.37 %	-5	-0.62 %
AGRARIO	16	+3	23.08 %	0	0 %
HOGAR	131	+5	3.97 %	+6	4.80 %
MAR	0	0	0 %	0	0 %
CARBON	0	0	0 %	0	0 %

Gizarte segurantzako afiliatuak (Iturria: forocidad.com).

2021eko irailean erregistratutako langabeziari dagokionez, SEPEk irailean argitaratutako datuen arabera, langabetu-kopuruak 10 pertsonatan egin du gora. Elgoibarko langabezi-zerrendaren 10 pertsona berri horietatik, 5 gizonak ziren eta 5 emakumeak.

Langabetu-kopurua 501 da, horietatik 185 gizonekoak eta 316 emakumezkoak.

Hala, 45 urtetik gorako pertsonak dira langabeziak gehien eragiten dien adin-taldea, 239 langaberekin, eta, ondoren, 25 eta 44 urte bitartekoak, 213 langaberekin. Talde txikiena 25 urtetik beherakoak dira (49 langabe).


Sektoreka aztertuta, udalerrian langabetu-kopururik handiena zerbitzuetan dago (280 pertsona); ondoren, industrian (99 langabe); gero aurretik lanik eduki ez duten pertsonak daude (94 langabe); jarraian, eraikuntza-sektorekoak (17 langabe) eta, azkenik, nekazaritzakoak (11 langabe).

Septiembre 2021	Total Parados	Variacion			
		Mensual		Anual	
		Absoluta	Relativa	Absoluta	Relativa
Total	501	+10	2.04 %	-119	-19.19 %
HOMBRES	185	+5	2.73 %	-83	-30.97 %
MUJERES	316	+5	1.61 %	-36	-10.23 %
MENORES DE 25 AÑOS:	49	+13	36.11 %	-18	-26.87 %
HOMBRES	19	+3	18.75 %	-22	-53.66 %
MUJERES	30	+10	50.00 %	+4	15.38 %
ENTRE 25 Y 44 AÑOS	213	+7	3.40 %	-70	-24.73 %
HOMBRES	62	+3	5.08 %	-39	-38.61 %
MUJERES	151	+4	2.72 %	-31	-17.03 %
MAYORES DE 45 AÑOS	239	-10	-4.02 %	-31	-11.48 %
HOMBRES	104	-1	-0.95 %	-22	-17.46 %
MUJERES	135	-9	-6.25 %	-9	-6.25 %
SECTOR:					
AGRICULTURA	11	0	0 %	-2	-15.38 %
INDUSTRIA	99	0	0 %	-38	-27.74 %
CONSTRUCCIÓN	17	-1	-5.56 %	-16	-48.48 %
SERVICIOS	280	-6	-2.10 %	-56	-18.67 %
SIN EMPLEO ANTERIOR	94	+17	22.08 %	-7	-6.93 %

Elgoibarko langabetu-kopurua. (Iturria: forocidad.com)

4.2.3.2. Lurzoru-erabilerak

Jarduketa-eremua Elgoibarko hirigunean dago. Inguruko lurzoru-erabilera nagusiak honako irudi honetan ageri dira:



Lurzoru-erabileren mapa. Iturria (Geoeskadi.eus).

Partzelan, lurzoru-erabilera artifiziala da, kasu honetan Elgoibarko hiri-garapenaren parte da, beraz, hiri-lurzoru sailkatuko da. Partzelaren inguruko erabilerei erreparatuz gero, aipagarria da haren hegoaldeko eta mendebaldeko baso naturaleko eremua.

4.2.3.3. Ondarea

Aztergai den eremuak ez du ondare-elementurik bere mugen barruan.

Elgoibarren ondare-elementuak daudela aztertu da, baina horiek ingurumen-azterketa honen xede den partzelatik urrun daude, hirigunetik kanpo. Honako hauek dira:

- Altzola Dorrea, XV
- Olasoko Hilerriaren portada, XV
- San Bartolome Eliza, XVIII
- Santa Clara Komentua
- Udaletxea (XVIII)
- Altolako bainuetxea
- Zabalatorre Baserria

- Idotorbeko ermita (San Pedro)
- Azkueko ermita (San Roke)
- Sallobente-Ermuarango Ermita

4.3. Inplikaturako lurralde-eremuaren diagnostikoa eta ingurumen-balorazioa

Aizkorri 3. Sektoreko H.E.U.4 egikaritze-unitateko eremuan ez da ingurumen-balio nabarmenik edo garrantzitsurik identifikatu. Eremutik hurbilen dauden natura-balio aipagarrienak, azterlanaren xede den eremutik nahiko urrun daude, hala nola: kostalde osoa, sistema hidriko kontinentalak, nolabaiteko babesa duten naturaguneak edo ingurumen-balio handiko landaredi-unadak.

Ingurumenaren ikuspegitik, inplikaturako lurralde-eremuak ez du elementu nabarmenik, hala nola, habitat bereziak edo fauna garrantzitsuaren babesguneak eta eremua ez dago inolako babes-figuran jasota. Era berean, identifikaturako zuhaitz bat bera ere ez dago katalogoan eta daudenak apaingarriak edo espezie oportunistak dira. Bestalde, aipagarria da partzelaren hegoaldeetik hedatzen den baso misto hostogalkorreko landaredia. Era berean, eremuaren mugen barruan ez inguruetan, ez dago babestutako ondare-elementurik.

Beraz, ondorioztatu da azterketa honen xede den partzelak, Aizkorri 3. sektoreko H.E.U.4ri dagokionak, pisu gutxiko ingurumen-balorazioa duela, ez baititu natura-ingurunekeko elementu nabarmenak edo aipatzeko modukoak.

5. Aurreikusi daitezkeen ingurumen-ondorioak

Atal honetan, 7.A.2 Azpieremuaren Plan Berezia aldatzeak ekar ditzakeen ondorioak karakterizatu dira, 21/2013 Legearen 29.1 artikulua adierazten duen bezala, ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozeduraren barruan, Ingurumen-dokumentu Estrategikoak "...Aurreikusi daitezkeen ingurumen-ondorioak eta, hala badagokio, horien kuantifikazioa"-ri buruzko informazioa eman behar du.

5.1. Aldaketan proposatutako jarduketaren artean inpaktuak sor ditzaketenak identifikatzea

Planteatutako HAPBren aldaketak, betiere ingurumenaren ikuspegitik, ondorioak izan ditzake ingurune hartzailean, horren onspenaren ondorioz eta honako jarduketaren arabera:

Hondeaketak:

Lurzoruaren hondeaketa-sakonera mugatzea proposatu da, erdisotoko solairuaren akabera, gutxi gorabehera, +51,75 i.m.g.m. kotan egon dadin, egungo antolamenduan hori 43 i.m.g.m. kotan planteatuta dago. Izan ere, azterketa geoteknikoaren arabera, ezinezkoa da hegalararen egonkortasuna bermatzea hondeaketa horiek eginez gero.

Proposatutako hondeaketa egitea ezinezkoa denez, eraikuntzaren bolumena eta erabilera-araubidea aldatu behar dira, 26 etxebizitza egin ahal izateko eta hirigintza-parametroak eta dagokion araudia betetzeko.

Partzela-mugaren aldaketa:

Eremuaren jasotze topografikoa egin ondoren eta errealitate fisikoa kontuan izanda, azpieremuaren partzeletarako muga berriak proposatu dira. Horrela, lerrokadura berrien ondoriozko partzelen azalerak honako hauek izango dira:

- 1. partzela: 591,00 m². Erabilera: Hiri Bizitegia (berdin mantenduko da)
- 2. partzela: 194,10 m². Erabilera: Bidea (+ 28,54 m²)
- 3.1. partzela: 134,92 m². Erabilera: Berdegunea (- 40,53 m²).
- 3.2. partzela: 173,10 m². Erabilera: Berdegunea (+ 12,11 m²).

Bolumenak:


Ordenantzan aipatzen diren 3 soto-solairuak egiteko aukera desagertu denez, sestrapeko eraikuntza-profila erdisotoko solairu bakarrera mugatuko da. Hori dela-eta, aurretik aipatu den bezala, eremurako zehaztutako eraikigarritasun-baldintzak aldatu behar dira eta eraikin berria ingurunera egokitu.

Plangintza horren arabera, erabilera bizigarrietarako baldintzak desagokiak direnez, planteatu da lehen solairua etxebizitzaren erabilera osagarrietarako bakarrik izatea. Modu horretan eraikuntza-eremua partzelaren hego-ekialdean kontzentratuko da, bertan partzelak malda kontrolatuagoa duelako eta lurzorua konposizioa gainerako orubekoa baino hobea delako.

Aparkatzeko solairuetan ibilgailuentzako sarbideari dagokionez, Santa Klara kaletik kanpoko bi sarbide independente sortzea proposatzen da. Hala, kale nagusiaren desnibela aprobetxatuko da solairu bakoitzerako sarbide independentea sortzeko eta horien artean barneko ibilgailu-komunikazioa kentzeko.

HAPOn 2.308 m²-ko eraikigarritasuna aurreikusita dago. Kontuan hartuta deskribatutako solairuetan ez dela eremu eraikigarri osoa okupatuko eta azaleraren zati bat eremu komun publikoetarako eta pribatuetarako erabiliko dela, estalkipeko solairua atikoetarako aprobetxatzea proposatzen da, gainerako eraikigarritasuna osatzeko. Solairu hori eraikinaren hegalean lerrokaduratik 2,50 m atzeraematen da, kaletik ikusi ez dadin eta modu horretan, proposatutako eraikinak hiri-ingurunean duen eragina murrizteko.

Hori guztia egiteko beharrezkoa da eraikuntzaren gehieneko altueraren kota 72,75 m izatea, Plan Berezian aurreikusitako bizitegi-erabilerako 4 solairuak eraiki ahal izateko eta HAPOn ezarritako gutxienezko 2,50 m altuera librea betetzeko. Aldaketa horrek estalkipeko solairua terrazadun estalki laua izatea ahalbidetzen du.



Eraikinaren altuerako alderaketa-ebaketak

Erabilera-araubidea:

Ordenantzan aipatzen diren 3 soto-solairuak egiteko aukera desagertuenez, sestrapeko eraikuntza-profila erdisotoko solairu bakarrera mugatuko da. Hori dela-eta, sestra azpiko profila aparkaleku-erabilera erdisotoko solairu bakarra izango da eta ezarritako aparkaleku-plazen eta trasteleku-azaleraren zati bat betetzeko erabiliko da, gainera, horiek etxebizitzekin komunikatuta egon beharko dute.

Hegalaren profila ahal den neurrian aldatu nahi ez bada, eta, horrekin batera, lurzorua ondeaketa mugatu nahi bada, sestra azpiko solairu eraikigarriak hirutik batera murriztuko dira. Horrela, erdisotoko solairu horren gainean, eraikinaren beheko solairua hasiko da. 2011ko HAPBk solairu horretan aparkalekua eta erabilera osagarria / merkataritza-erabilera esleitzen du: merkataritza eta aparkalekua. Hori dela-eta, proposatutako erabilera-araubidea egokitzea proposatu da, hau da, beheko solairua aparkalekurako eta etxebizitzaren erabilera osagarriarako soilik erabiltzea. Aldaketa horrek proposamena berrantolatzeko aukera ematen du, arauak ezarritako aparkaleku-kopurua (1/etxebizitza) bete ahal izateko.

Partzelaren topografikora itzulita eta ebaketetan antzematen den bezala, orubearen hego-mendebaldean lurzoru-kota oraindik 60 m inguruko altueratik gora dago. Horregatik, erabilera bizigarrietarako baldintzak desagokiak direnez, planteatu da lehen solairua etxebizitzaren erabilera osagarrietarako bakarrik izatea.

B) ERABILERAREN BALDINTZA OROKORRAK

		HAPB 2011	HAPB ALDAKETA
SESTRA GAINEAN	ATIKO SOLAIRUA	-	BIZITEGIA
	ESTALKIPEKO SOLAIRUA	OSAGARRIA	-
	EREDU-SOLAIRUA	BIZITEGIA	BIZITEGIA
	LEHENGO SOLAIRUA	-	BIZITEGIA ETA OSAGARRIAK
	BEHE SOLAIRUA	MERKATARITZA	APARKALEKUA ETA OSAGARRIAK
SESTRA AZPIAN	ERDISOTO SOLAIRUA	-	APARKALEKUA ETA OSAGARRIAK
	SOTO SOLAIRUA	APARKALEKUA	-

5.2. Inpaktuak jasan ditzaketen inguruneko elementuak identifikatzea

Dokumentu honetan aztertutako HAPBren aldaketaren ondoriozko jarduketek zuzenean edo zeharka ingurumen-faktore nagusi hauengan eragina izan dezakete:

Ingurune fisikoa: klimatologia, orografia, hidrologia eta atmosfera-kalitatea

Ingurune biotikoa: landaredia, fauna, paisaia eta naturagune babestuak.

Giza ingurunea: sozioekonomia, arrisku naturalak, mugikortasuna, lurzoru-erabilerak eta ondarea

Bestalde, 21/2013 Legeak HAPBren aldaketak klima-aldaketan izan ditzakeen ondorioak aztertzeke beharrezkoa ezartzen du. Horregatik, klima-aldaketa beste ingurumen-faktoretzat hartu da.

Jarraian, 7.A.2 Azpieremuko Plan Bereziaren aldaketaren ondoriozko jarduketak eta ingurune hartzailearen ingurumen-faktore nagusiak jasotzen dituen laburpen-taula dago.

ALDAKETA-PROPOSAMENAREN EKINTZAK	
HONDEAKETAK	
BIRMUGATZEA	
BOLUMENAK	
ERABILERA-ARAUBIDEA	
INGURUMEN-FAKTOREAK	
INGURUNE FISIKOA	KLIMATOLOGIA
	OROGRAFIA
	HIDROLOGIA
INGURUNE BIOTIKOA	ATMOSFERA
	LANDAREDIA
	FAUNA
	PAISAIA
GIZA INGURUNEA	NATURAGUNE BABESTUA
	SOZIOEKONOMIA
	ARRISKU NATURALAK
	MUGIKORTASUNA
	LURZORU-ERABILERAK
KLIMA-ALDAKETA	ONDAREA

7.A.2 Azpieremuko Plan Bereziaren aldatetaren ekintzen eta ingurumen-faktoreen laburpen-taula

5.3. Aurreikusi daitezkeen ingurumen-ondorioen identifikazioa eta balorazioa

Atal honetan, planteatutako HAPBren aldatetaren ondorioz aurreikusi daitezkeen ingurumen-ondorioak jaso dira, aurreko atalean azaldutako ingurumen-faktoreei dagokienez.

Aurreikusi daitezkeen ingurumen-ondorioak identifikatzeko eta baloratzeko, proposatutako ekintzak baloratu dira, batez ere, ondorengo eraginak definitu dira: hondeaketen murrizketa, birpartzelazioa, proposatutako bolumen-aldaketa eta proposamen berriaren erabilera-araubidearen aldaketa.

5.3.1. Klimatologia

Inguruko klimatologiari dagokionez, ez da aldatetarik aurreikusten aldagai horretan. Izan ere, identifikatu diren eraginak puntualak dira eta ez dira batere esanguratsuak, hala ez da aztertu ingurumen-faktore horretan aldatetarik sortu dezakeen eraginik. Horregatik, faktore horren gaineko ingurumen-inpaktua **NULUA** da.

5.3.2. Orografia

Huts aukera

2011ko HAPBren egungo antolamenduan proposatutako jarduketek (huts aukerakoek) eragin nabarmena izango dute tokiko orografian egin beharreko **hondeaketen** ondorioz, izan ere, horiek mendi-hegalen mugimenduak eragin ditzakete eta partzelako hegalaren egonkortasuna arriskuan jarri. Aukera honetan jasotako hondeaketek 9 m-ko sakonera dutenez, eustorma izango dute, lur-jausien arriskua murrizteko.

Hondeaketen afektazio-eremuko tokiko orografiaren gaineko eraginak **ARINAK** kalifikatu dira.

1. Aukera

HAPBren aldaketan proposatutako antolamenduak ahalik eta eragin txikiena izango du tokiko orografian, eta egungo antolamenduan aurreikusitako **hondeaketa** intentsiboak saihestuko dira. Horiek ahalik eta gehien murriztuko dira, beraz, tokiko orografiarengan eragina gutxituko da eta, ondorioz, mendi-hegalaren lur-jausien arriskua ere.

Horregatik, 1. aukerari lotutako tokiko orografiaren gaineko eraginak **BATERAGARRIAK** izango dira.

5.3.3. Hidrologia

Eragindako lurralde-eremuaren ingurumen-deskribapenean adierazi den bezala (dokumentu honetako 4.2.1.4. puntuan), partzelan planteatutako antolamenduek aztergai den eremuaren inguruan identifikatutako ur kontinentaleko sistemengan ez dute eraiginik izango, ez gaur egungoak (huts aukerak), ezta proposatutakoak (1. aukerak) ere. Izan ere, Deba ibaia, hurbil dagoen ur-ibilgua izanda, hori eremutik 150 m-ra dago, eta Aizti ibaia, aldiz, oraindik hurbilago egon arren, lurpetik igarotzen da, eremuan Deba ibarekin ur-bateratzera arte.

Hala ere, huts aukeran hondeaketa (lur-mugimendu) gehiago planteatzen direnez eta, era berean, horiek zabortegira garraiatu behar direnez, horrek guztiak eragin handiagoa izango du uren kalitatean 1. aukeran baino, nahiz eta bi kasuetan horien eraginak ingurune hartzailearekin **BATERAGARRIAK** izan.

5.3.4. Atmosfera

Ingurumen-aldagai honek aztergai den eremuko atmosfera-kalitatea eta kalitate akustikoa barne hartzen ditu.

Atmosfera-kalitateari dagokionez, eremuko biztanleriaren hazkundeak ez du eragin nabarmenik izango ingurumen-faktore horretan. Etorkizunean garajeak egin arren, trafikoa gutxi handituko dela aurreikusten da, garaje horien erabiltzaile berri gehienak Elgoibarrekoak izango baitira.

Ingurumen-hartzailearen (4.2.1.5) deskripzio-atalean jasotako atmosfera-kalitatearen azterketari erreparatuz gero, ibilgailuen zirkulazioari eta etxeko sektore ekonomikoari lotutako kutsatzaile nagusiak aztertu ondoren, antzeman da NO₂ eta CO kontzentrazioak muga-balioen oso azpitik daudela. Beraz, hirigunean ibilgailu-kopurua pixka bat handitzea ez da esanguratsua izango.

Bestalde, atal honetan aztertu dira bai HAPBn aurreikusitako antolamenduak (huts aukerak), bai hura aldatzeko proposamenak (1. aukerak) konfort akustikoan eragiten dituzten kalteak.

Huts aukera

Aukera honetan, lur-mugimendu gehiago beharrezkoa denez, inguruko konfort akustikoan ere eragin handiagoa izango du. Hala ere, horiek guztiak zarata puntualak izango dira, obren fasean bakarrik. **Hondeaketa**-lanak eurek eta hondeatutako lurra zabortegira garraiatzeak zarata eta kutsatzaile atmosferikoak areagotuko dituzte.

Hala ere, batez ere deskribatutako eraginen behin-behinekotasuna dela-eta, horiek **BATERAGARRIAK** izango dira ingurune hartzailearekin.

1. Aukera

Hondeaketak ia deuseztu egiten direnez, inguru horren atmosferaren kalitateari eragindako makina-erabileraren eta hondeatutako materiala garraiatzearen ondoriozko kalteak ere murrizten dira.

Horregatik, huts aukerarekin alderatuta atmosfera-faktorearen gaineko eraginak txikiagoak izan arren, hauek ere ingurune hartzailearekin **BATERAGARRIAK** izango dira.

5.3.5. Landaredia

Aztergai den eremuko landaredian, 4.2.2.1. puntuan deskribatu denean, eragina izango dute bai HAPBn (huts aukeran), bai planteatutako horren aldaketan (1. aukeran) proposatzen diren jarduketek, partzelan identifikatutako indibiduo gehienen ezabatzea suposatuko dutelako.

Bi aukeretan baso misto atlantikoa errespetatu da, baina eraikuntza egin bitartean horrengan ere puntualki eragingo da.

Aipatu beharra dago etorkizuneko eraikuntzak eragin zuzena izango duela ondorengo espezieetan: erruderaletan eta apaingarrietan. Beraz, horien natura-balioa urria edo ia hutsa da.

Bestalde, eraikuntza-bolumenak (bi aukeretan) eragina izan lezake hegalaren gailurreko baso misto atlantikoak jasotzen duen argitasunean. Hala ere, basoa egun iparraldera begira dagoenez, ingurunea berez ez da oso eguzkitsua, hortaz, ez da espero eraikinak argitasuna zeharo murriztuko duenik.

Azkenik, 1. aukeran aurreikusitako birpartzelazioan murrizketak eginez gero, berdegune osoa txikituko da (3.1 eta 3.2. partzelak, guztira 34,81 m²), hau da, partzelan etorkizuneko landare-estalkia txikiagoa izango da. Hala ere, faktore horri lotutako eraginak ez dira esanguratsuak, lorategietan dauden bertako espezieekin lehengoratzea proposatuko baita.

Hori dela-eta, planteatutako bi aukeretan, huts aukeran eta 1. aukeran, landarediaren gain eragina izan dezaketen afektazioak **BATERAGARRIAK** izango dira.

5.3.6. Fauna

4.2.2.2 atalean deskribatu den bezala, inguru horretako fauna orokorra eta ubikista da. Hori dela-eta, tokiko faunaren gaineko eraginak **BATERAGARRITZAT** har daitezke; izan ere, faunarengan izan daitezkeen inpaktuek ez dute suposatuko bertako indibiduo guztiak ezabatzea, baizik eta horietako askok euren habitatak aldatu beharko dituztela.

Bestalde, bisoi europarraren noizbehinkako presentzia duen ur-ibilgua hurbil egoteak ez du esan nahi espezie horrengan eta inguruko horren habitatetan eragin nabarmena izango duenik.

5.3.7. Paisaia

Proiektatutako eraikuntza berriak paisaian eragin negatiboa izango duela aurreikusten da (bai huts aukeran, bai 1. aukeran). Gaur egungo hiri-paisaiaren eraldaketa hori, ordea, ikus-kalitate gutxiko eremuan egingo da.

Ondoren, proposatutako hiru behaketa-puntu bakoitzean inguruko paisaia-faktorean eragina izan dezaketen afekzioak aztertuko dira. Horiek dokumentu honi erantsitako ingurumen-baldintzatzaileen planoan ageri dira.

1. Behaketa-puntua:

Behaketa-puntu hori Santa Klara kalean bertan dago, aztergai den partzelaren ekialdean, zehazki.

Planteatutako bi aukerek ez dute ikusmen-eragin nabarmenik sortzen, proposatutako lerroek kaleari jarraipena ematen baitiote.

2. Behaketa-puntua:

Bigarren behaketa-puntua ere Santa Klara kalean dago, aztergai den partzelaren ipar-mendebaldean.

1. behaketa-puntuan bezala, bi aukeretan proposatutako bolumenak kalearen lerroan erabat barneratuta daude.

3. Behaketa-puntua:

Proposatutako hirugarren behaketa-puntua Aizkorri kalean dago, partzelaren ipar-ekialdean, zehazki ibarbidearen beste aldean.

Puntu horretatik, aukera bakoitzean proposatutako eraikinen ikuspena ez da ia nabaritzen, eta Santa Klara kaleko eraikinen lerroa jarraitzen du.

Nabarmendu behar da bi eraikuntza-proposamenetako batek ere ez duela ikusmen-intrusismorik sortuko aztertutako ikuspegi nagusietatik. Izan ere, proposamenek Santa Klara kaleko lerroa jarraitzen dute erabat eta ia ez da ikusmen-eragin handiko bolumen berririk egingo.

1. aukeran eraikuntzaren gehieneko altuera 72,75 m-ra aldatzea proposatu da, Plan Berezian aurreikusitako bizitegi-erabilerako 4 solairuak eraiki ahal izateko eta HAPOn ezarritako gutxienerako 2,50 m-ko altuera librea betetzeko. Aldaketa horrek estalkipeko solairua terrazadun estalki laua izatea ahalbidetzen du. 2011ko Plan Berezia, estalkipeko tipologiarako, teilatu-hegalaren altuera solairuko azken forjatuaren gainean jartzeko beharra aurreikusten zuen, partzelaren eraikigarritasuna mugatu ahal izateko.

Hala, atikoan 2,50 m-ko atzeraemangunea beharrezkotzat jotzen bada, ondorioztatu da proposamenaren ikusmen-eragina Plan Berezian kontuan hartutako tipologiaren oso antzekoa dela. 2011ko Plan Berezia aldaketaren ondoriozko teilatu-hegalaren kota +69,25 m da, proposamen berriaren atikoko forjatu-mailaren kotaren antzekoa. Gailurrari dagokionez, +71,95 m-ko kotan ezartzen da, proposamenaren altueratik hurbil dago eta betiere eraikuntzaren gehieneko altueraren azpitik. Balio hori aurrekoa baino zertxobait handixeagoa denez, beharrezkotzat jo da atikoa 2,50 m atzeraematea, hala, ondorioztatu da proposamenaren ikus-eragina Plan Berezia kontuan hartzen duen tipologiaren oso antzekoa izango dela.

Jarraian, partzelaren hiriguneko eraikin mugakideen teilatu-hegalaren eta gailurraren koten laburpen-taula dago, garaieraren arabera ordenatuta:

ERAIKINA	GAILURRA i.m.g.m	TEILATU-HEGALA i.m.g.m
2	69,50	66,85
3	71,30	68,80
1	72,00	69,80
7.A.2	72,75	
5	79,50	
4	84,50	


Orubearen aurreko lehen eraikinaren (2), Transformazio-zentroa baino lehen dagoenaren, teilatu-hegalaren kota +66,85 m-koa da eta gailurra +69,50 m-ko kotan dago. Hala ere, eremu horretan altuera txikiena duen eraikina da. Hurrengo eraikinak, Santa Klara kalean gora (3), teilatu-hegala +68,80 m-ra du eta gailurra, aldiz, +71,30 m-ko altueran. Bidean gora eginez, hiri-garapenerako eraikinik altuena dago (5). Horren estalkia +84,50 m-ra iristen da eta fatxadak gehienez 80,00 m-ko altuera du. Eraikineko antenak eta tximiniak +88,00 m-raino heltzen dira.

Partzelara itzulita, planteatutako atiko-solairua erabat barneratuta geratuko litzateke eraikuntza-ingurunean, estalki-altuera +72,25 m ($\pm 0,50$ m)-koa izango da, eraikuntzaren gehieneko altueraren balioa 72,75 m beteta, eta azken forjatuaren goi-kota, gutxi gorabehera, +69,25 m ($\pm 0,50$ m)-koa; hiri-garapeneko eraikin altuenen oso azpitik.


Partzelarekin hegoaldean mugakide den eraikinak (1), bestalde, teilatu-hegala +69,80 m-ko altuerakoa du eta gailurra +72,00 m-koa. Kota horiek proposamenaren antzekoak dira eta multzoari jarraipena emango diote.

Iradokitako aldaketek ez dute eraikina hiri-ingurunean barneratzean eraginik izango eta hura natura-ingurunean integratzea lagunduko dute. Garatu beharreko proposamenen eragina murriztu da, ahal den neurrian, egungo hegala mantenduta. Eraikinaren gailurra, era berean, inguruko eraikinekin erabat barneratzen da, horren altuerak +68,90 m eta +84,50 m bitartekoak izanik.

Jarraian 1. aukeran jasotako proposamenaren xehetasun grafikoa ageri da, diseinatutako bolumena hirian nola barneratzen den ikusteko.



1. aukerako hiri-sarean paisaia-integrazioa adierazteko xehetasun grafikoa



1. aukeraren eraikin mugakideen gailurraren eta teilatu-hegalaren kotak adierazteko xehetasun grafikoa.

Azkenik, 1. aukeran aurreikusitako birmugaketa murriztuko da, berdegune osoa txikiagoa izango da (3.1 eta 3.2. partzelak, guztira 19,04 m² izango dute), horrek partzelaren etorkizuneko landare-estalkia gutxituko du, horrela inguruko paisaia-kalitatea murriztu ahal izango da. Faktore horri lotutako eraginak ez dira esanguratsuak izango, izan ere, berdegune murriztua (3.1 partzela) aztertu diren behaketa-puntuetatik ez da ikusgarria.

Egindako ikuspen-azterketatik abiatuta, ondorioztatu da eremu honetako paisaian sortutako afekzioa **BATERAGARRIA** dela. Izan ere, proposaturiko irtenbideak eraikin mugakideekin bat egitea dute helburu, horiei jarraipena emanda, hala, eraikuntza trinkoa eskainita. Hori dela-eta, eraikin berriak ez du bere bolumenagatik paisaia-eragin nabarmenik sortzen, erabat egokitzen baita garatutako inguruko eraikinetara.

Identifikatutako eraginak ahal diren neurrian arintzeko, prebentzio-neurriak eta neurri zuzentzaileak proposatu beharko dira, batez ere proiektu-fasean, paisaiaren gaineko eragina gutxitzeko.

5.3.8. Naturagune Babestuak

Eraginda egon daitekeen lurralde-eremuaren ingurumen-deskribapenean aipatu den bezala, inguruan ez dago naturagune babesturik, beraz, dokumentu honen xede den 7.A.2 Azpieremuko Plan Bereziaren aldaketak ingurumenean izan dezakeen eragina **NULUA** da.

5.3.9. Arrisku naturalak eta teknologikoak

Ekialdeko Kantauriko Konfederazio Hidrografikoan sarrera libreko uholde-arriskuari buruzko mapa ofizialak aztertuz gero, antzeman da Deba ibaiak Elgoibarren duen 10, 100 eta 500 urteko itzulketa-epealdiek ez dutela eraginik izango aztergai den eremuan.

Elgoibarko arrisku sismikoari dagokionez, horrek V. mailako intentsitatea du, Arrisku Sismikorako Larrialdi Planaren arabera. Nahiz eta arrisku sismikoa txikia izan, kontuan hartu beharko dira *2002ko irailaren 27ko 997/2002 Errege Dekretuan* jasotako Eraikuntza Sismorresistentearen Arauko jarraibideak.

Bestalde, aztergai den eremuak baso-sute arrisku txikia dauka, hala ere, arrisku ertaineko baso-eremuarekin muga egiten du. Hori dela-eta, eraikuntza-lanetan beharrezko neurriak hartu beharko dira baso-eremu horietan sutea izateko arriskua areagotzen duten egoerak saihesteko.

Azpimarratu behar da, halaber, ez dela identifikatu lurzorua kutsatzeko arriskurik aztergai den partzelan.

Aipagarria da eraikuntza-lanen ondorioz, partzelako mendi-hegalaren gain sor daitezkeen eraginak, izan ere, horiek partzelaren egonkortasuna arriskuan jar dezakete, beraz, hegala irristatzeko arriskua handituko dute. Eragin horiek planteatutako bi aukeretako bakoitzean kuantifikatu egin dira.

Huts aukera

2011ko HAPBren egungo antolamenduan proposatutako jarduketek (huts aukerakoek) eragin nabarmena izango dute tokiko orografian egin beharreko **hondeaketen** ondorioz, izan ere, horiek mendi-hegalaren mugimenduak eragin ditzakete eta partzelako hegalaren egonkortasuna arriskuan jarri. Aukera honetan jasotako hondeaketek 9 m-ko sakonera dutenez, eustorma izango dute, lur-jausien arriskua murrizteko.

Hondeaketen afektazio-eremuko tokiko orografiaren gaineko eraginak **ARINAK** kalifikatu dira.

1. Aukera

HAPBren aldaketan proposatutako antolamenduak ahalik eta eragin txikiena izango du tokiko orografian, eta egungo antolamenduan aurreikusitako **hondeaketa** intentsiboak saihestuko dira. Horiek ahalik eta gehien murriztuko dira, beraz, tokiko orografiarengan eragina gutxituko da eta, ondorioz, mendi-hegalaren lur-jausien arriskua ere.

Horregatik, 1. aukerari lotutako tokiko orografiaren gaineko eraginak **BATERAGARRIAK** izango dira.

5.3.10. Sozioekonomia

Bi aukerek etxebizitza-kopuru bera dute; beraz, bizilagun-kopurua berdina izango da bi kasuetan. Aipagarria da "huts aukerak" eraikuntzaren zati bat erabilera mistorako aurreikusten duela, behe solairuko merkataritza-erabilera barne, erabilera hori, aldiz, ez da 1. aukeran aurreikusten. Merkataritza-erabileraren alderaketa hori kontuan hartuta, "huts aukerak" duen eragin sozioekonomiko positiboa 1. Aukerarena baino handiagoa izango da, baina balio horren gaineko eragin-desberdintasuna ez da aipagarria izateko bezain handia.

Horregatik, tokiko sozioekonomian eragindako afekzioak bi aukeretan **BATERAGARRI POSITIBOAK** izango dira. Izan ere, bi antolaketek zuzeneko eta zeharkako eragin positiboak izango dituzte gizarte-ingurunean eta tokiko hazkunde ekonomikoan, inguruko biztanleen hazkundearekin eta udalerriko bizilagun berrien erroldatzearekin lotutakoak.

5.3.11. Mugikortasuna

Kontuan hartuta aztertutako bi aukerek etxebizitza-kopuru bera izango dutela, eremuan erabiltzaile gehiago daudenez, mugikortasun-arazoak areagotu daitezke, batez ere puntako orduetan.

1. aukeran proposatzen den aparkalekurako ibilgailuentzako sarbideari dagokionez, Santa Klara kaletik kanpoko bi sarbide independente sortu nahi dira. Hala, kale nagusiaren desnibela aprobetxatuko da solairu bakoitzerako sarbide independentea sortzeko eta horien arteko barne ibilgailu-komunikazioa kentzeko; izan ere, azterketa geoteknikoaren arabera, hondeaketa-azalera erabilgarria mugatua da. Horrela, barneko azalera eraikia optimizatuko da, aparkaleku-

plaza gehiago lortzeko. Sarbide bakoitza bidearen mutur batetik egingo da, bata bestearengandik ahalik eta gehien aldentuta. Partzelaren kasu zehatzean, ibilgailuentzako sarbide bat baino gehiago izateak ez du eragin txarrik izango oinezkoen zirkulazioan, lurzoru urbanizaezinarekin mugatzen duen partzela delako. Espaloia ez da hiriguneko gainerakoekin lotzen eta bere trazadura partzelaren iparraldeko muturrean bukatzen da. Horrela, oinezkoen zirkulaziorik handiena bidearen beste aldeko espaloitik izango da.

Horregatik, bi aukerek eragin **BATERAGARRIA** izango dute inguruko mugikortasunean.

5.3.12. Lurzoru-erabilerak

Ingurumen-dokumentu honen xede den partzelako lurzoru-erabilerak hiri-lurzoru izaten jarraituko du, beraz, ingurune hartzailearekiko eraginak **NULUAK** dira.

5.3.13. Ondarea

Ez dago ondare-elementurik 7.A.2 Azpierzemuko Plan Bereziaren aldaketaren eragindako eremuan; beraz, eraginak **NULUAK** dira.

5.3.14. Klima-aldaketa

Egiaztatu da aztertutako bi aukeren ekintzek ez dutela eragin nabarmenik eskala handian aztertutako ingurumen-aldagaietan. Hala, aldagai horietan eraginik ez izaterakoan, eta inolako sinergiarik ez dagoenez, ziurta daiteke ez dagoela aurreikusitako eraginik eta ez duela zuzeneko ondorioak klima-aldaketan.

5.4. Ondorioak

Ondoren, aztertutako bi aukeretan (huts aukeran eta 1. aukeran) identifikatutako eragin posible bakoitzaren balorazioaren laburpen-taula jaso da.

ALTERNATIVA CERO															
ACCIONES DEL PROYECTO	FACTORES AMBIENTALES	CLIMATOLOGÍA	OROGRAFÍA	HIDROLOGÍA	ATMÓSFERA	VEGETACIÓN	FAUNA	PAISAJE	E.N.P.	SOCIOECONOMÍA	RIESGOS NATURALES	MOVILIDAD	USOS DEL SUELO	PATRIMONIO	CAMBIO CLIMÁTICO
		EXCAVACIONES		M	C	C	C	C	C				M	C	
VOLÚMENES					C	C	C								
RÉGIMEN DE USOS					C	C	C		+			C			

<input type="checkbox"/>	Afección nula	<input checked="" type="checkbox"/>	Afección compatible
<input checked="" type="checkbox"/>	Afección positiva	<input checked="" type="checkbox"/>	Afección moderada

"Huts aukeran" identifikatu diren afekzioen balorazioaren laburpen-taula

ALTERNATIVA 1															
ACCIONES DEL PROYECTO	FACTORES AMBIENTALES	CLIMATOLOGÍA	OROGRAFÍA	HIDROLOGÍA	ATMÓSFERA	VEGETACIÓN	FAUNA	PAISAJE	E.N.P.	SOCIOECONOMÍA	RIESGOS NATURALES	MOVILIDAD	USOS DEL SUELO	PATRIMONIO	CAMBIO CLIMÁTICO
		EXCAVACIONES		C	C	C	C	C	C				C	C	
REDELIMITACIÓN					C			C							
VOLÚMENES					C	C	C								
RÉGIMEN DE USOS					C	C	C		+			C			

<input type="checkbox"/>	Afección nula	<input checked="" type="checkbox"/>	Afección compatible
<input checked="" type="checkbox"/>	Afección positiva	<input checked="" type="checkbox"/>	Afección moderada

"1. aukeran" identifikatu diren afekzioen balorazioaren laburpen-taula

Aurreko paragrafoetan deskribatutako afekzioak aztertuz gero, horien laburpena aurreko tauletan jaso dena, antzematen da Elgoibarko 7.A.2-Santa Klara 19 azpierzemuko HAPBko partzelaren egungo antolamenduak, hau da, **HUTS AUKERAK**, eragin **ARINAK** izango dituela **tokiko orografian eta mendi-hegalaren irristatzeko arriskuetan**, eta horiek hainbat ingurumen-faktorerekin bateragarriak direla. Hala, aukera horretan identifikatutako eraginen balorazioaren laburpen txikia erantsi da:

Eragin esanguratsuak **tokiko orografian** eta mendi-hegalaren egonkortasunaren gaineko **hondeaketen** ondorioz, hau da, **mendi-mazela irristatzeko arriskuetan, ARIN** kalifikatu dira. Hala, horiei lotutako balizko lerradurak eragiteraino, partzelako mendi-mazelaren egonkortasuna arriskuan jarrita. Aukera honetako hondeaketak 9 m-ko sakonerakoak dira, eta eustorma dute, lur-jausien aukera murrizteko.

Huts aukerak 1. aukerak baino **hondeaketa-kopuru** (lur-mugimendu) handiagoa duenez, horien zabortegirako garraioak ere, eragin handiagoa izango du uren kalitatean, nahiz eta eragin posibleak ingurune hartzailearekin **BATERAGARRI** kalifikatuak izan.

Eraikuntza berriak eragina izango du **atmosfera-faktorean**, ez bakarrik obra- eta ustiapen-faseko emisioen gorakadagatik, baita egungo egoera fonikoaren gaineko presio-hazkundeagatik ere. Hala ere, eragin horiek **BATERAGARRIAK** izango dira ingurune hartzailearekin.

Faktore biotiko adierazgarriengan, hala nola, **landaredian eta faunan** eragina izango du, lehenengoan, landare-estalkia kentzean, eta bigarreanean, aurreko ekintza horren ondorioz. Landarediak ez duenez balio esanguratsurik eta fauna ia guztia ubikista denez, faktore horien gaineko eraginak **BATERAGARRIAK** dira.

Egindako ikuspen-azterketatik abiatuta, ondorioztatu da eremu honetako paisaia sortutako afekzioa **BATERAGARRIA** dela. Izan ere, proposaturiko irtenbideak eraikin mugakideekin bat egitea dute helburu, horiei jarraipena emanda, hala, eraikuntza trinkoa eskainita. Hori dela-eta, eraikin berriak ez du bere bolumenagatik paisaia-eragin nabarmenik sortzen, erabat egokitzen baita garatutako inguruko eraikinetara.

Sozioekonomiak ERAGIN POSITIBOA izango du, ez bakarrik tokikoak, udal-mailakoak ere. Izan ere, gaur egun aprobetxamendurik gabeko lurzoruak garatuko dira, eta horrek biztanle-kopurua handituko du inguruan, eta, ahal dela, bizilagun gehiago errolatuko dira udalerrian.

Azkenik, proposatutako garapen berriak **mugikortasunean** eragina izango du, nahiz eta trafikoaren hazkunde-balioak oso nabarmenak ez izan. Horregatik, faktore horren gaineko eragina **BATERAGARRIA** da.

Bestalde, antzematen da Elgoibarko 7.A.2-Santa Klara 19 azpierzemuko HAPBko partzelarako planteatutako aldaketak, hau da, **1. AUKERAK, hainbat ingurumen-faktorerekin BATERAGARRIAK** diren eraginak izango dituela. Hala, aukera horretan identifikatutako eraginaren balorazioaren laburpen txikia erantsi da:

HAPBren aldaketan proposatutako antolamenduak eragin txikia izango du tokiko **orografian**, egungo antolamenduan aurreikusitako hondeaketa intentsiboak saihestuko dira. Hondeaketak ahalik eta gehien murriztuko direnez, gutxi kaltetuko da tokiko orografian duen eragina eta, ondorioz, mendi-mazelaren irristatzeko arriskua ere. Horregatik, 1. aukerari lotutako tokiko orografiaren gaineko eraginak **BATERAGARRIAK** izango dira.

Hondeaketak ia hutsera murriztean, makina-erabileraren eta hondeatutako materialaren garraioa ere murriztuko da eta inguru horretan **atmosfera-kalitateari** eragindako kalteak ere gutxituko dira. Horregatik, atmosfera-faktorearen gaineko eraginak huts aukerarekin alderatuta txikiagoak izan arren, ingurune hartzailearekin **BATERAGARRIAK** izango dira.

Faktore biotiko adierazgarriengan, hala nola, **landaredian eta faunan** eragina izango du, lehenengoan, landare-estalkia kentzean, eta bigarreanean, aurreko ekintza horren ondorioz. Bestalde, 1. aukeran aurreikusitako birpartzelazioaren murrizketa dela-eta, berdegune osoa txikituko da (3.1 eta 3.2. partzelak, guztira 19,04 m² izango dute), beraz, etorkizuneko landare-estalkia txikiagoa izango da partzelan. Hala ere, faktore horri lotutako eraginak ez dira esanguratsuak izango, lorategietan dauden bertako espezieekin lehengoratzea proposatuko baita. Landarediak ez duenez balio esanguratsurik eta fauna ia guztia ubikista denez, faktore horien gaineko eraginak **BATERAGARRIAK** dira.

Egindako ikuspen-azterketatik abiatuta, ondorioztatu da eremu honetako **paisaian** sortutako afekzioa **BATERAGARRIA** dela. Izan ere, proposaturiko irtenbideak eraikin mugakideekin bat egitea dute helburu, horiei jarraipena emanda, hala, eraikuntza trinkoa eskainita. Bestalde, 3.1 partzelan proposatu den berdegunearen murrizketari dagokionez, faktore horri lotutako eraginak ez dira esanguratsuak izango, berdegune murriztua aztertutako behaketa-puntuetatik ez baita ikusgarria. Hori dela-eta, eraikin berriak ez du bere bolumenagatik paisaia-eragin nabarmenik sortzen, erabat egokitzen baita garatutako inguruko eraikinetara.

Sozioekonomiak ERAGIN POSITIBOA izango du, ez bakarrik tokikoak, udal-mailakoak ere. Izan ere, gaur egun aprobeitxamendurik gabeko lurzoruak garatuko dira, eta horrek biztanle-kopurua handituko du inguruan, eta, ahal dela, bizilagun gehiago erroldatuko dira udalerrian.

Aurretik aipatu den bezala, HAPBren aldaketan proposatutako antolamenduak eragin txikia izango du tokiko orografian, izan ere, egungo antolamenduan aurreikusitako hondeaketa intentsiboak saihestuko dira. Hondeaketak ahalik eta gehien murriztuko direnez, gutxi kaltetuko

da tokiko orografian duen eragina eta, ondorioz, **mendi-mazelaren irristatzeko arriskua** ere. Horregatik, 1. aukerari lotutako tokiko orografiaren gaineko eraginak **BATERAGARRIAK** izango dira.

Azkenik, proposatutako garapen berriak **mugikortasunean** eragina izango du, nahiz eta trafikoaren hazkunde-balioak oso nabarmenak ez izan. Horregatik, faktore horren gaineko eragina **BATERAGARRIA** da.

Ondorioz, 1. aukeran identifikatu diren ingurumen-afekzioak **BATERAGARRIAK** izango dira ingurumen-hartzailearekin; **huts aukeran** identifikatutako eraginak, berriz, partzelako lur-mugimenduak direla-eta, **ARINAK izango dira orografia faktoreari eta mendi-hegala irristatzeko arriskuari dagokienez.**

6. Sektore- eta lurralde-planetan aurreikusi daitezkeen ondorioak

Elgoibarren indarrean dagoen plangintzaren gaineko eraginei dagokienez, Elgoibarko HAPOko 7.A.2-Santa Klara 19 azpierzemuko partzela aldatzeko proposamenak zenbait aldaketa ekarri ditu Elgoibarko 2011ko Hiri Antolamenduko Plan Bereziko azpierzemuaren fitxan, eta aldaketa horiek dokumentu honetako 2.2.2 puntuan jasotako alderaketa laburpen-taulan identifikatu dira.

Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialari dagokionez, jarduketaren eremua horren aplikazio-eremutik kanpo dago, beraz, aldaketaren garapenak ez du eraginik izango Plan horretan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen Lurralde Plan Sektorialari dagokionez, bere 5. artikuluan hainbat hezegune-talde ezartzen dira, eta azterketa-eremutik hurbilen dagoena III. taldeko Aixolako urtegia da, gutxi gorabehera 10 kilometrora dagoena. Beraz, proposatutako aldaketa-proposamenak ere ez dio eragingo.

Euskal Autonomia Erkidegoko **Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialak** horien antolamendua arautzen du. Ingurumen-dokumentu honen balorazio-identifikazioan jaso den bezala, ez da identifikatu tokiko azaleko hidrologian eragina izan dezakeen afekziorik.

Bestalde, **Itsasertzaren Babes eta Antolamendurako Lurralde Plan Sektorialak** ez du eraginik izango planteatutako aldaketa-proposamenean.

Kultura-ondare higiezinaren babesa Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legearen arabera da. Hori arintzeko asmoz eta atzerapenak saihesteko, **Kultura Ondare Higiezinaren Lurralde Plan Sektoriala** sortu da. Ez da aurkitu EAEko monumentu/monumentu-multzo izendatutako eremu arkeologikorik, ezta ondasun higiezinik ere, planteatutako aldaketaren afekzio-eremuaren inguruan.

Itsaso eta Lehorraren arteko Jabari Publikoaren Antolamenduari eta baldintzatzaileei dagokienez, aldaketa horrek ez du interakziorik Kostaldeko Legearekin eta itsasertzeko lerroen mugarekin, ezta itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren mugaketarekin ere. Hala, afekzio-eremutik hurbil ez dago babes-zortasunik, ezta itsasora sartzeko bide-zortasuneko eremurik ere.

EAEko Haize Energiaren Lurrealde Plan Sektoriala behin betiko onartu zen maiatzaren 14ko 104/2002 Dekretuaren bidez. Plan horrek indarreko plangintzan haize-energiako instalazioa aurreikusten badu, horrengan hainbat ondorio ezartzen ditu. Elgoibarren kasuan ez da horrelakorik gertatzen, LPSk ez baitu horrelako instalaziorik proposatzen udalerrian.

"**Klima Aldaketaren aurkako Euskal Plana**"ri dagokionez, aipatu beharrekoa da, afekzioen identifikazio atalean esan den bezala, aldaketa-proposamenaren ekintzetako bakar batek ere ez duela eragin esanguratsurik, edozein eskalatan, kontuan hartutako ingurumen-aldagaietan. Hala, aldagai horietan eraginik ez duenez, hau da, sinergiarik ez duenez, ziurtatu da ez dagoela klima-aldaketan aurreikusi daitekeen eraginik, ezta ondoriorik ere.

7. Ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozedura aplikatzeko arrazoiak

Elgoibarko HAPBn planteatutako aldaketaren bidez lortu nahi den irismena ezagutu ondoren, Ingurumen-dokumentu Estrategikoa idazteko aukera aztertu da, Ingurumen-ebaluazio Estrategiko Sinplifikatuko prozeduraren bidez; ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak ezartzen duen moduan.

“6. artikulua. Ingurumen-ebaluazio estrategikoaren aplikazio-eremua.

2. Ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua honako kasu hauetan egin behar da:

a) Aurreko paragrafoan aipatutako plan eta programetan aldaketa txikiak egitean.

b) Aurreko paragrafoan aipatutako plan eta programetan, udal-mailan eremu txikien erabilera ezartzen dutenean.

c) Etorkizunean proiektuak baimentzeko esparrua ezartzen duten plan eta proiektuetan, aurreko paragrafoan ezarritako gainerako baldintzak betetzen ez dituztenean.”

Elgoibarko HAPBn planteatutako aldaketan jasotako zehaztapenak bat datoz “Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen” 6. artikuluko 2. atalean (a eta b letretan) ezarritako kasuekin; beraz, Ingurumen-dokumentu Estrategikoa idatziko da, Ingurumen-ebaluazio Estrategiko Sinplifikatuaren prozedura jarraituta.

Hala, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoaren arabera, “29. artikulua. Ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua hasteko eskaera”, jarraitu behar da, beraz, beharrezkoa izango da, besteak beste, Ingurumen Dokumentu Estrategikoa izeneko dokumentua idaztea honako gutxienerako eduki hauekin:

“29. artikulua. Ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua hasteko eskaera

1. Plan edo programa abian jartzeko edo onesteko prozedura substantiboaren barruan, sustatzaileak ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua hasteko eskaera aurkeztuko dio organo substantiboari, arloko legediak eskatutako dokumentuekin batera. Agiri horiez gainera, plan edo programaren zirriborroa aurkeztuko du, bai eta ingurumen-agiri estrategikoa ere, gutxienez honako informazio hau adierazita:

a) Plangintzaren helburuak.

b) Proposatutako planaren irismena eta edukia, eta teknikaren eta ingurumenaren aldetik bideragarriak diren arrazoizko aukerak.

c) Planaren edo programaren garapen aurreikusia.

d) Eragindako lurralde-eremuan plan edo programa garatu aurreko egoeraren ezaugarriak.

e) Aurreikus daitezkeen ingurumen-eraginak; eta, egoki izanez gero, haien kuantifikazioa.

f) Arloko eta lurraldeko aldibereko planetan aurreikus daitezkeen eraginak.

g) Ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozedura aplikatzearen arrazoia.

h) Aintzat hartutako aukeren artean egindako hautaketaren arrazoen laburpena.

i) Plan edo programaren aplikazioak ingurumenean eragin dezakeen edozein ondorio negatibo prebenitzeko, murrizteko, eta, ahal den neurrian, zuzentzeko aurreikusitako neurriak, klima-aldaketa kontuan hartuta.

j) Planaren ingurumen-jarraipenerako aurreikusitako neurrien deskribapena.”

Horrela, egungo Ingurumen Dokumentu Estrategikoa idatzi eta izapidetu da, Ingurumen-ebaluazio Estrategiko Sinplifikatuaren prozedurako premisak jarraituta, Elgoibarko 7.A.2-Santa Klara 19 Azpierzemuko partzelarako planteatzen den HAPBren aldaketa garatzeak dakarren ingurumen-izapidetzea hasteko.

8. Aurreikusitako aukerak hautatzeko arrazoien laburpena

Planteatzen den aldatetaren irismena dela-eta, bi aukera baino ez dira aztertu eta ebaluatu: "huts aukera" eta "1. aukera".

1. aukera proposamen zehatza da eta beharizan jakin batzuei erantzuten die. Horren helburua da Elgoibarko 7.A.2-Santa Klara 19 Azpieremuko partzelarako HAPBk ezarritako antolamendua aldatzea. Hala, partzela horretan egindako azterketa geoteknikoaren ondorioz, aldaketa horretan hegalaren oinarrian hondeaketarik ez egitea gomendatzen da.

Beste aukera, "huts aukera" edo jarduketarik gabekoa, Elgoibarko 7.A.2-Santa Klara 19 Azpieremuko partzelarako HAPBk ezarritako antolamendua mantentzea da.

9. Proposatutako ingurumen-neurriak

Proposatutako ingurumen-neurriak bi multzo handitan bereizi dira: batetik, proposatutako aldaketa garatzeko prozesuan identifikatutako eraginak murriztera bideratutakoak, eta, bestetik, etorkizuneko hirigintza- eta eraikuntza-lanek izan ditzaketen eraginak arintzeko ingurumen-neurrien multzoa.

PLANTEATUTAKO ALDAKETAREN GARAPENEAN IDENTIFIKATUTAKO ERAGINAK ARINTZEKO PROPOSATUTAKO NEURRIAK:

Proposatutako aldaketan definitutako jarduketan garapen-lanetan, ingurumen-neurri hauek hartuko dira kontuan, horiek **prebentzio-neurriak** soilik izango dira:

Araudiak betetzea, berez, prebentzio-neurri multzoa kontuan hartzea da, hiri-plangintzaren garapen egokia bermatzen dutena. Horretarako, aplikatu beharreko hirigintza-araudi guztia hartu da kontuan, eta hori Dokumentu honetan aztertu da.

Bestalde, istripu-arriskuaren murrizketa Segurtasunari eta Osasunari buruzko Azterlanaren proiektuarekin bermatuko da, eraikuntza-obretan gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretua beteta. Hala ere, ezinbestekoa da lanak beteko direla bermatzea, obren jarraipen egokiaren bidez.

Kanpoko argiteria publiko eta pribatuko instalazioek argi-kutsadura prebenitzeko araudi sektorialean eskatzen diren baldintzak bete beharko dituzte.

Paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeari buruzko ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuaren esparruan, proiektu batzuetarako "Paisaia-integrazioaren Azterlanak" egitea aurreikusten da.

Legearen arabera, beharrezkoa da Paisaia-integrazioaren Azterlana egitea ondorengo kasuetan: garraio-azpiegituren obretan (portuak barne) eta horien sareetan; interes publikoko zuzkiduretan, ekipamenduetan edo jardueretan; administrazio publikoko erabilerarako eta zerbitzuetarako obretan; II Eren menpeko proiektuetan; lurralde- eta hirigintza-plangintzak eskatzen dituen beste kasu batzuetan; eta ondare historiko-artistikoko eremu katalogatuetan edo inbentariatuetan garatzen direnetan.

Beraz, Ingurumen-dokumentu honetan zehaztutako jarduketa aurretik aipatutako kasuen artean ez dagoenez, ez du azterlan hori egin beharko. Hala ere, ahal den neurrian, fatxadako materialak bat egingo dute eremuko eraikinen berezko materialekin eta etorkizuneko

eraikinaren fatxadako funtsezko elementuen osaerak inguruko tipologiarekin, materialekin eta kolore nagusiekin bat egin beharko du.

Lorategiak eta eraikinaren fatxada bera modu harmoniatsuan mailakatuko eta integratuko dira. Etorkizuneko eraikinaren fatxadako materialtasunaren eraikuntza-ezaugarriek bat etorri beharko dute ingurunearen ezaugarriekin, hiri-ingurune hartzailea errespetatuta.

Dagokion hondakinen kudeaketa-sistemak ezartzea: ontziak (plastikoa, latak, brika); beira, papera-kartoia, HHS organikoak. Hala, sortuko diren hiri-hondakin solidoak behar bezala kudeatzeko neurriak prestatuko dira. Horrela, hondakinak batuko, bilduko eta baimendutako kudeatzaileari eramango zaizkio, haizeak alde batetik bestera eraman ditzakeen hondakinak eta kontrolatu gabeko materia organikoko zabortegekin lotutako bektoreek ingurumenean eragin ditzaketen kalteak saihesteko.

Hondakinen kudeaketa ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legean xedatutakoaren arabera arautuko da.

URBANIZAZIO- ETA ERAIKUNTZA-LAN BERRIEN ERAGINAK ARINTZEKO PROPOSATUTAKO NEURRIAK:

Airearen kutsadurarako prebentzio-neurriak:

Airearen kalitateari eta atmosferaren babesari buruzko azaroaren 15eko 34/2007 Legean eta airearen kalitatea hobetzeari buruzko urtarrilaren 28ko 102/2011 Errege Dekretuan ezarritakoa aplikatuko da.

Materiala garraiatzeko makinek eta ibilgailuek atmosferara partikulak igortzea saihestu beharko da.

Materialak eta hondakinak batzeko eremuak olanaz edo plastikoz estaliko dira, partikulak eta sedimentuak askatu eta arrastatu ez daitezten.

Kutsadura akustikorako prebentzio-neurriak:

Ondorengo araudietan ezarritakoa aplikatuko dira: Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea; aurreko lege hori garatzen duten abenduaren 16ko 1513/2005 Errege Dekretua, ingurumen-zarataren ebaluazioari eta kudeaketari buruzkoa, eta urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretua; zona akustikoari, kalitate-helburuei eta emisio akustikoei buruzkoa.

Makina guztiek indarreko araudi aplikagarrian jasotako soinu-igorpen mailak bete beharko dituzte, batez ere 212/2002 Errege Dekretua, aire zabaleko makina jakin batzuen erabileraren inguruko zarata-emisioak arautzen dituena, eta horren ondorengo aldaketak.

Erabilitako makinek sortzen duten zaraten eragozpenak saihesteko, mantentze-lan prebentibo eta erregularra egingo da, bibrazio-maila handiekin lan egiten duten ajustatu gabeko elementuek edo oso higatuek eragindako zaratak kentzeko.

Ezin izango da obra zaratatsurik egin 22:00etatik 8:00ak arte. Gainera, bereziki errespetatuko da obretarako eta zamalanetarako ezarritako ordutegia.

Hondakin-ekoizpena gutxitzeko neurriak

Hondakin-kudeaketaren arloan indarrean dagoen legeria aplikatu eta nahitaez bete beharko da:

- 105/2008 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, eraikuntza- eta eraispén-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituena.
- 7/2022 Legea, apirilaren 8koa, hondakinen kudeaketa ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoa.

Obrako proiektu-teknikoak eraikuntza- eta eraispén-hondakinen kudeaketa-azterketa jasoko du.

Gainera, obrek irauten duten bitartean hondakinak kudeatzeko gunea identifikatu beharko du. Eremu hori honakoetarako egokitu beharko da: kutsadura saihesteko, eguraldi txarretik babestea bermatzeko, izan daitezkeen isurketak geldiarazteko eta uneoro, baldin badaude, hondakin arriskutsuen kategoriak edo halakotzat hartzen ez direnekin ere nahastea ekiditeko.

Obretan sobratzen diren materialak eta sortutako bestelako hondakinak baimendutako kudeatzaileari emango zaizkio.

Landarediaren kontserbazio-neurriak

Kentzen diren zuhaitz bakoitzaren ordeztako espezieetako bi ale landatuko dira. Kasu honetan ez da aurkitu ingurumen-balioko espezierik, egungo espezieek balio apaingarria eta fruta-balioa dute.

Landaredia modu estrategikoan planteatuko da, natura-paisaia gehien aldatzen duten instalazioen ikuspena murrizteko.

Arkeologia-ondarearen kontserbatzebazio-neurriak

Lur-mugimenduak egin behar diren obra guztietan arkeologia-kontrola egingo da, ez bakarrik eraikuntza-lanetan, baizik eta eragindako lurzoruen urbanizazio- eta azpiegitura-hornidura faseetan ere.

Proiektuaren egikaritze-lanetan arkeologia garrantzia handiko aztarnategi, aurkikuntza edo aztarnaren bat agertzen bada, obren arduradun enpresak, azpikontratek edota zuzendaritza fakultatiboek kontuz geldiarazi beharko dituzte hari eragin diezaioketen lan guztiak. Ondoren, berahala Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari aurkitutakoaren berri emateko txostena bidaliko zaio. Nolanahi ere, jarduera ez da berriz abian jarriko, sail horren jakinarazpenik izan arte.

Klima-aldaketaren prebentzio-neurriak

Klima-aldaketari dagokionez, ez dago aurreikusi daitekeen efekturik eta ondorio negatiborik. Ondorioztatu da jarduketak ez duela eraginik aldagai horretan, horregatik, ez dira beharrezkoak prebentzio-neurriak, murriztzaileak edo zuzentzaileak. Hala ere, aurretik aipatutako neurriek ere arindu dezakete 7.A.2 Azpieremuko Plan Bereziaren aldaketaren garapenak klima-aldaketan izan dezakeen edozein eragin.

9.1. Proposatutako ingurumen-neurrien balorazio ekonomikoa

Proposatutako ingurumen-neurriak ezin direnez zehaztu eraikuntza- eta urbanizazio-proiektua egin arte, ez da oso eraginkorra proposatutako ingurumen-neurriak kuantifikatzea. Izan ere, neurri gehienak nahiko orokorrak dira, eta urbanizazio- eta eraikuntza-faseei dagozkienak ezin dira ekonomikoki baloratu, etorkizuneko esku-hartzeak zehaztasun handiagoz definitu arte.

10. Proposatutako aldaketaren ingurumen-jarraipenerako aurreikusitako neurrien deskribapena

Ingurumena zaintzeko programa bi zaintza-eremu nagusitan egituratuko da. Horietako bakoitzean, proposatutako HAPBren aldaketaren ondoriozko proiektuaren fase guztietan egin beharreko jarraipenak ezarriko dira, bi eremutan banatuta: Obra-jardueraren Zaintza eta Paisaia lehengoratzeko Zaintza.

Hona hemen aipatutako bi faseak batzen dituzten atalen laburpena:

Obra-jardueraren Zaintzak honakoak hartzen ditu barne: instalazio osagarrien kokapenaren ondorioak egiaztatzea, hondakinak batzeko eremuak, obraren isurpen kutsatzaile nagusiak kontrolatzea (makinariaren koipeak eta olioak, etab.), inguruko uraren kalitatea eta arkeologia-kontrola.

Obra-jarduerak irauten duen bitartean zaintza-kontrolak, honako jarraipen hauetan egituratuko dira:

1. Kokapenaren jarraipena eta aldi baterako okupazioaren hedapena.
2. Obra-instalazioen inguruko isurketen jarraipena.
3. Hondakin arriskutsuen obrako kudeaketa-jarraipena.
4. Konfort akustikoaren jarraipena.
5. Argi-kalitatearen jarraipena.
6. Obrako arkeologikoa-kontrolaren jarraipena.
7. Eraikuntza-elementuen ikusmen-eragina.
8. Biztanleriaren babes-neurrien jarraipena.

Paisaia-integratzeko zaintzan erabilitako lehengoratzeko-neurri guztien jarraipena egingo da, horien bilakaera eta errotzea, bere berme aldiaren eta ustiapenean. Jarraipen hauek jasotzen ditu:

1. Berdeguneen paisaia-jarraipena eta -egokitzapena.

Hona hemen bi area horien jarraipena.

10.1. Obra-jardueraren Zaintza

Zaintza-eremu horren helburua da honakoak ebaluatzea eta kontrolatzea: instalazioen kokapenaren ondorioak, hondakinak uzteko eremuak eta horien isurpenak, uraren kalitatearen bilakaera, konfort akustikoa, argi-kalitatea eta arkeologia-kontrolaren eta -babesaren eraginkortasuna. Horretarako, jarraipen hauek ezarri dira:

1. Aldi baterako okupazioaren kokapena eta hedapena: jarraipen honen helburua da obrako instalazio osagarrien kokapenari eta hedapenari buruzko ezarpenak betetzen direla bermatzea. Horretarako, instalazio osagarrien kokapena zuzenean egiaztatuko da, hori egokia dela ziurtatzeko, etorkizuneko eraikuntza-proiektuan ezarritako eskakizunen arabera. Bestalde, obrako instalazioen (materialen, olioien eta erregaien biltegiak, etab.) eta hondakinak uzteko eremuen kokapenerako indarreko legeria sektoriala aplikatu beharko da.

Kontratatutako instalazio horien kokapen zehatzaren plana duen Plana aurkeztuko du, beti ere indarrean dagoen legeria sektorial aplikagarria bereziki kontuan hartuta.

2. Obra-instalazioen inguruan isurketak: Jarraipen honen helburua da obrako instalazioen inguruan arrasteek, isurketek edo jarioek eragin ditzaketen kalteak ebaluatzea. Horretarako, instalazio horien inguruan gorabehera horiek dauden ala ez zuzenean egiaztatzea planteatzen da.

Bereziki zainduko da makinarien mantentze-lanak (olioa aldatzea, erregaia hornitzea, garbitzea, etab.) eraginik ez izatea lan-eremuan eta haren inguruan. Erabilitako olioak ontzi egokietan jasoko dira, gero geldotze- edo birziklatze-instalazioetara eramateko. Nolanahi ere, aipatutako eragiketen ondorioz inguruko lurzoruetara edozein isurketa solido edo likido egitea saihestuko da. Makinak garbitzerakoan urak atxikitze- eta dekantazio-egituretara bideratuko dira.

Makinariarekin zerikusia duten erregaiei eta hidrokarburoei dagokienez, horiek oso kutsagarriak dira (kontzentrazio oso txikietan, uren kalitatea nabarmen kaltetu dezakete), eta berehala zuzenean zorupean barneratzen dira. Hala, erregaiak kargatzeko eta maniobratzeko lanak zehatz-mehatz egin beharko dira estankotasuna bermatzen den tokietan.

3. Hondakin Arriskutsuen kudeaketa obran: Jarraipen honen helburua da makinaren jardueretatik eta mantentzeetatik, hormigoitze-prozesuetatik eta hondakin arriskutsuak sor ditzaketen gainerako iturrietik sortutako hondakin arriskutsuen kudeaketari buruzko

preskripzioak betetzen direla bermatzea. Horretarako, hondakin horiek sortzen dituzten instalazioak zuzenean ikuskatzea planteatzen da, obran horien kudeatzea eta Hondakin Arriskutsuen kudeatzailearen jasotzea eta tratatzea ere.

Olio erabilia hondakin arriskutsuak izango dira. Bereziki olio erabiliei buruzko guztia kudeatuko da. Horien kudeaketa honakoak bermatzeko jarduera-multzoa da: giza osasunaren babesa, ingurumen-kontserbazioa eta baliabide naturalen babesa. Hala, ondorengo eragiketak jasotzen ditu: bildu, biltegitatu, tratatu, berreskuratu, birsortu eta erre.

Ekoizlea da jardueraren titular gisa olio erabilia sortzen duen pertsona fisikoa edo juridikoa. Horrez gain, halaber, berez edo beste pertsona fisikoaren edo juridikoaren agindupean olio erabilia sortzen duena ere bada. Kontratista sortutako olio erabili guztiaren erantzule izango da.

Kudeatzailea olio erabilien edozein kudeatze-jarduera egiteko baimendutako pertsona fisiko edo juridikoa da, olio horien ekoizlea izan ala ez.

Kontratista behartua dago erabilitako olio behar bezala kudeatzera, kutsadura ingurune hartzaileetara eraman gabe.

Debekatuta dago:

1) Olio erabilia ondorengoetan isurtzea: lurrazaleko uretan, barrukoetan, lurpekoetan eta estolderia-sistemetan edo hondakin-urak husteko sistemetan.

2) Lurzoruan ondorio kaltegarriak dituen olio erabilia biltzea edo botatzea, eta horren tratamendutik eratorritako hondakinak kontrolik gabe isurtzea.

3) Erabilitako olioaren tratamendu oro, atmosfera-ingurunearen babesari buruzko legerian ezarritakoa baino kutsadura atmosferiko handiagoa eragiten badu. Kontratatik aurreko atalean adierazitako debekuak bete beharko ditu, baimendutako kudeatzaileari olio emanda.

Aurreko atalean xedatutakoa betetzeko, ekoizleak betebeharrak izango ditu:

1) Erabilitako olioak behar bezala biltegitatzea, urarekin edo oleaginosoak ez diren beste hondakin batzuekin nahastea sahiestuta.

2) Erabilitako olioak bildu eta kudeatu arte kontserbatzeko instalazioak izatea, eta bilketarako ibilgailuek eskuragarri izatea.

3) Olio erabiliak jasotzeko gaitasuna duten pertsoneri ematea, edo haiek, beharrezko baimenarekin, baimendutako kudeaketa-tokiraino garraiatzea.

Kontratatik kontrol- eta jarraipen-agiria aurkeztuko dio Obra-zuzendaritzari, ekoizleak eta hartzaileak sinatuta. Kontratatik lagapen bakoitzari dagokion agiriaren kopia gordeko du urtebetez. Kudeatzaileak horien kopia igorri beharko dio organo eskudunari.

4. Konfort akustikoaren jarraipena: eragindako eremuan eraikuntza- eta urbanizazio-obren fasean egingo da.

Neurketa akustikoak egingo dira, ondorengoak egiaztatzeko: obrek ingurumen-faktore horretan duten eragina gutxienekoa dela eta akustika-arloko udal-ordenantzetara eta indarreko legeria sektorialera egokitzen direla.

Urbanizazio- eta eraikuntza-obretako ibilgailuak eta makinak egoera onean daudela egiaztatuko da, horien egiztagiria ikuskatuta, hala nola: indarreko IAT edo CE ziurtagiria.

5. Argi-kalitatearen jarraipena: Kanpoko argiteria publikorako eta pribaturako indarreko araudi sektoriala betetzen dela egiaztatuko da, eta hori Elgoibarko Udalean aurkeztutako urbanizazio- eta eraikuntza-proiektuetan jaso beharko da, dagokion udal-lizentzia eskatzen den unean.

6. Obraren Arkeologia-kontroloaren eraginkortasuna: jarraipen honen helburua da arkeologia-kontrolerako lanak eraikuntza-fase osoan egiten direla bermatzea.

Edozein arkeologia-aurkikuntzaren berri eman eta obrak geldiarazi beharko dira, langile kualifikatu-taldeak ondare-aurkikuntzak egiaztatu eta datatu arte.

7. Eraikuntza-elementuen ikusmen-intrusioa: Paisaia-integrazioa bermatuko da dagoen hiri-eremuan eta hura ingurunean egoki integratzea.

Horretarako, eraikuntza-proiektuetan paisaia-integrazioaren atala jasoko da, agiri honetan eta etorkizuneko Ingurumen-inpaktuaren Txostenean aurreikusitako neurriak aztertzeke eta kontuan hartzeke.

8. Biztanleriaren babes-neurrien jarraipena: Etorkizunean ur-baliabideak (edateko ur-hornidura) eta energia (elektrizitatea, gasa) izango direla egiaztatuko da. Etorkizuneko garapenerako oinarrizko baliabideen eskuragarritasuna bermatuko da.

10.2. Paisaia lehengoratzeko Zaintza

Jarraipen horren barruan, honako hauek sartzen dira: tratatutako eremuen gaineko landare-lurzoruaren atxikpenaren egiaztapen esperimentalak, ereintzen eta landaketen errotzea, lurzoruaren balizko higadura-prozesuak kontrolatzea eta zuzentzea, eta landaketak desagertzea edo lekualdatzea.

1. Lorategien paisaia-egokitzapena eta jarraipena: jarraipen horren helburua da etorkizuneko lorategietan proposatutako landareztatzearen eraginkortasuna bermatzea. Horretarako, eraikuntza-proiektuan proposatutako belar-geruzaren eta zuhaixka- zein zuhaitz-oinen garapena behatzea planteatzen da, behar bezala hazten direla kontrolatzeko.

Ingurumen-zaintza kontuan hartuko da, landaketen hazkunde-fasean ez ezik, ondorengo fase hauetan ere:

1) Ereiteko lurrazala prestatzea: Landare-lurraren geruza zabaldu baino lehen, lurrazalean eskarifikazio- eta profilatze-lanak zainduko dira, ezpondarekiko norabide perpendikularra jarraituta, agertzen diren harri handiak eta objektu arraroak lurperatuta edo kenduta. Eragiketa horrek uraren iragazpena laguntzen du, isurketa-fluxuak murrizten edo ezabatzen ditu, landare-lurraren irristatze-arriskua saihesten du eta sustraiak sartzeko errazten du.

2) Landare-lurraren ekarpena: metatutako landare-lurra 20-30 cm-ko lodieradun geruzetan zabaltzea zainduko da, ezponden goiko aldetik hasita, halakorik balego.

Eremu lauetan istilik ez dagoela aztertuko da, eta halakorik gertatuz gero, kaltetutako eremua berregingo da, hala, gainazalaren egokitze- eta landare-lurraren zabaltze-lanak errepikatuko dira.


Ager daitezkeen gorputz arrotzak kendu direla aztertuko da, gainazala >25 cm-ko arroka-zatirik gabe dagoela eta 7-10 cm-ko zatien proportzioa % 5 baino txikiagoa dela ziurtatuko da.

3) Ereintzak eta landaketak: Landareztatze-tratamenduak (ereintzak eta landaketak) aplikatuko dira obren ondoriozko gainazal gordin guztietan, honako helburu nagusia lortzeko: paisaia-integrazioa eta higaduraren aurkako defentsak zein jariatzeen bidez lurrak garbitzea.

Erabilitako ongarriak, haziak eta landareak eraikuntza-proiektuan ezarritako ezaugarrietara edo bertan jasotako aldaketetara egokitzen direla ziurtatuko da.

Ereintza-garaiak egokienak direla aztertuko da: martxotik maiatzera eta abuztutik urrira bitarteko aldiak, izozterik gabe; hala ere, larrialdi-arrazoiak direla-eta, udan edo urritik aurrera egin ahal izango dira, gutxieneko arrakasta ziurta daitekeenean.

I. ERANSKINA: PLANOAK



PUNTOS DE OBSERVACIÓN

- 1 Santa Klara Kalea
30T 547200,03 4784942,60
- 2 Santa Klara Kalea
30T 547136,46 4785003,85
- 3 Aizkorri Kalea
30T 547291,60 4784982,02

VEGETACIÓN

-  Bosque mixto
-  Especies ruderales (Zarzamora)
-  Especie ornamental (Conífera)
-  Especie ornamental (Conífera)

Proyecto:
**MODIFICACIÓN DEL PLAN ESPECIAL DE ORDENACIÓN URBANA
 UNIDAD DE EJECUCIÓN U.E.U.4 DEL SECTOR AITZGORRI 3
 SUBÁMBITO 7.A.2 - SANTA KLARA 19, ELGOIBAR**

Situación:
 Santa Klara 19, Elgoibar, Gipuzkoa

Técnico:
 Carlos Gómez Gómez
 Licenciado en Ciencias Ambientales

Nombre del plano:
CONDICIONANTES AMBIENTALES

Promotor:
 Viuda de Sainz S.A

Escala:
 S/E - UNE A3

Plano:
1

Fecha:
 SEPTIEMBRE 2022

